1919·2019

ARGIA

#2.665 | 2019/11/10 | 3,90 €

22 FEMINISMOA

Beste mugarri bat jarri du mugimendu feministak

3.000 LAGUNEK ERRONKAK IDENTIFIKATU ETA ESTRATEGIAK FINKATU DITUZTE DURANGON

Donostiako metroaren segurtasun neurriak ere auzitan

32 I GIZARTEA

"Zinemagileok instituzioak baino ausartagoak gara"

44 I TELMO ESNAL

"Gaur egun erradikala eta masiboa ez dira kontrajarriak"

52 I RAQUEL GUTIERREZ

ARGIA

AZOKA.ARGIA.EUS

AZOKAN SALGAI!
15€

+ 4€
BIDALKETA GASTUAK

XAPOKETAN

KARTA-JOKOA

Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. Karta hauekin 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.



Edukiak
Iñaki Sanz Azkue
Biologoa

Ikuspegi pedagogikoa
Lore Erriondo
EHUko irakaslea

Marrazkiak
Eñaut Aiartzaguena

ARGIA

2.665 zenbakia I Azaroak 10, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
LAIDA ZAPRE

Iritziak

17 I MIKEL ZURBANO
18 I MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
19 I ENEKO OLASAGASTI
19 I LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
20 I JOXERRA AIZPURUA SARASOLA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

39 I DENBORAREN MAKINA
40 I BIZI BARATZEA
42 I ARGIA KOMUNITATEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: RAQUEL GUTIERREZ
54 I BERANDUEGI

IBAN AGUINAGA

52 I **RAQUEL GUTIERREZ**
Latinoamerikako borroka sozialetan erreferentziazko izena da berea. Jaiotzez mexikarra, erabat murgildu zen Boliviako 80ko hamarkadako gerrilletan eta indigenen mugimenduetan. Ander Perez izan da berarekin.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Galestarrek zor ekologikoa arindu nahi, 10 milioi zuhaitz landatzen lagunduz Ugandan
Pello Zubiria Kamino

12 I AMAIA GONZALEZ DE GAMARRA
"Orduko sasoia banu, buru-belarri sartuko nintzateke saltsan"
Miel A. Elustondo

22 I EUSKAL HERRIKO V. JARDUNALDI FEMINISTAK
Salda badago, baldin eta zapore berriei irekita bagaude
Amaia Lekunberri Ansola

28 I ALBERT BOTRAN I PAHISSA
"Nahiko genuke Ezker Abertzaleak aliantza esparru bat izatea gurekin"
Zigor Oleaga

32 I GIZARTEA
Donostiako metroaren segurtasun neurriak ere auzitan
Lander Arbelaitz Mitxelena

36 I SOCORRO CAUICH
"Bileran maiaz hitz egin nuen lehen aldian, kideekin konektatu nuela sentitu nuen"
Onintza Irureta Azkune

44 I TELMO ESNAL
"Zinemagileok erakunde publikoak baino ausartagoak gara"
Gorka Peñagarikano Goikoetxea

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Igor Galarza, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

Noren pobrezia?

Gazako Zerrendan lau palestinarretik hiru pobrezian bizi da. Milioi bat pertsonek osatzen dute munduko kartzelarik handiena eta horietatik 400.000 umeak dira. 2006an Israelek ezarritako blokeoa; 2008, 2012 eta 2014an gazatarren aurkako gerra irekiak eta nazioarteko komunitatearen konplizitate isila dira errudun zuzenak, baita indar politiko palestinarren ustelkeria eta zatiketa ere. Munduan langabezia tasarik handiena du Gazak; baina baita egunerokoan erresistentziarako gaitasun aparta ere. Irudian: Alaba bainatzen, 2014ko gerran Israelgo armadak bonbaz suntsitutako etxearen parean.

MOHAMMED ZAANOUN / ACTIVESTILLS AXIER LOPEZ

Euskal herriko V. Jardunaldi Feministek saltsa handia sortu dute sare sozialetan

TXIKITASUNERA KONDENATU NAHI IZAN GAITUZTE, BAINA ASTEBURU HONETAKOA HANDI-HANDIA IZAN DA. EGUNOTAN ENTZUN, SENTITU ETA GOGOETATUTAKOA GORPUZTEA DAGOKIGU ORAIN, BAKOITZAK GURE EREMU ETA HERRIETATIK

@itziar_ostolaza

GIZARTEAK ESKUINERA JO OMEN DU, INDIBIDUALISMOA INDARTU OMEN DA, JENDEAK EZ OMEN DU KONPROMISORIK NAHI... BAINA EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTAK 3.000 MILITANTE ELKARTU DITU MAMIZ BETERIKO HAUSNARKETA ETA EZTABAIDAK BURUTUZ

@mendiolatik1

PLAZER BAT IZAN DA HIRU EGUN HAUETAN EMAKUME EZBERDINEN ARTEAN EZTABAIDATZEA, ELKARRENGANDIK IKASTEA ETA AURRERA BEGIRA JARTZEA. EUSKAL HERRIA FEMINISTA HELBURU: ANTIKAPITALISTA, DEKOLONIALA, ANITZA ETA BURU ETA GORPUTZEZ ASKE

@begonaegileor

NEKATUTA, BAI, BAINA INDARBERRITUTA, HAINBESTE LAGUN ETA AHIZPEN ARTEAN GAUR BIZITAKOAREKIN. GORA BORROKA FEMINISTA! FEMINISTA IZANGO DA EDO EZ DA IZANGO

@arantzatxu

Uber enpresa Bilbora heldu da

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Joan den astean eman dute jakitera Uber Bizkaiko hiriburuan dela, 20 auto ingururekin eta operatibo. "Ekonomia partekatua" edo "kontsumo partekatua" izenez ezagutzen diren enpresa ereduak hasiak ginen gurean ikusten. Langileen lan baldintza duinen eta eskubideen kalterako, AEBetatik esportatutako negozio ereduak geroz eta presentzia gehiago dauka Euskal Herriko hiriburuen bueltan ere: Glovo, Airbnb... Horiek egokitu direla dirudien honetan, atzetik etorri da molde bereko beste enpresa bat: Uber.

Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak egindako adierazpenen arabera, beraiek ez zeuden Uberren heldueraren jakinaren gainean. Alabaina, konpainiak baieztatu du Bilbo eta inguruetan zerbitzua eskaintzen hasia dela.

Uber X izeneko aplikazio bidez partikularren arteko garraio zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa da Uber. Aplikazioa erabiliz, pertsona batek ibilgailu bat alokatu dezake, txofer eta guzti; taxi gidariek eskaintzen duten zerbitzu bera, alegia. Hori horrela, Uberren etorrera posibleak aspalditik kezkatu du taxi sektorea.

GATAZKA MAHAI GAINEAN

Espainiako Gobernuak 2018an lege dekretu bat onartu zuen, xedatuz aurrerantzean autonomia erkidegoei eta udalei zegokiela "Turismo Ibilgailuak Gidariekin" direlakoen lizentziak arautzea, Uberrek lizentzia horiekin egiten baitu lan. Kontuan izanik taxi gidarien lizentziak ere erakunde berberen eskumenekoak direla, beren esku legoke giltza. Trantsizio epe gisa, lau urte eman zituen Espainiako Gobernuak.

2018ko irailean, Bilboko Udalak taxi zerbitzurako ordenantza baietsi zuen. "Bilbon, toki batetik besterako zerbitzua taxiena da. Beste gauza bat da aireportura heltzen den norbaitek beste aukera batzuk eskura izatea", adierazi zuen Bilboko Udaleko Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zinegotzi Alfonso Gilek.

Aste batzuen bueltan, Uber eta antzerakoen etorreraren aurrean posizionamendu argia eskatu zion Goazen Bilbaok Bilboko Udalari. Udalak, orduan, asmo berriak agertu zituen: taxien ordenantzaren baitan sartzea ibilgailu hauek ere.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Zientziari

ARITZ GALARRAGA

Gogoan duzue *Super size me* dokumentala? Hogeita hamar egunean janari azkarra besterik jaten ez zuen tipoarena? Nola ikus zitekeen zer ondorio dituen dieta horrek gizabanakoaren osasun fisiko eta psikologikoan? Berriz gogoratu dut neronek, orain ez asko gisa horretako jatetxe batera joan garelako. Eta egun bakarreko otordu bakarra izan arren, hasi nintzen dagoeneko sumatzen ondorioren bat, gerribuelta hazi egin zitzaidala, adibidez –tira, prozesua atzeragotik zetorren, egia da–. Eta, dei nazazue masoka, baina dokumental haren antzeko zerbait egiteko gogoa sartu zitzaidan.

Dena esatera, beti nahi izan dut halako erronkaren batean parte hartu, onuragarri sentitu, neure burua zientziari eskaini. Muturreko esperientzietarako ahulegi –luze gabe, zulo batean 532 egun pasatzeko, edo hamar egun komisaldegi batean inkomunikatuta–, nire neurrikoago zerbait egingo nuke, baina berdin humanitatearentzako baliagarria. Adibidez, urtebete pasa nezake euskal literatura soilik irakurtzen, gero ikusteko horrek zer eragin duen organismoan, burmuinaren masa muskularra galtzen ote den, edo irakurmen gaitasuna zenbateraino geratzen den kaltetuta. Gutxitxo iruditzen bazaizue, Moriartitarren filmografia osoa irents nezake buklean, astebetez, ea hortik Oscarretarako hautagai fermu bat ateratzen den, edo *serial killer* bat. Aseezinak bazarete, bizi ninteke, hil arte –jar dezagun dozena bat urte, asko jota–, Zubietako ingurumen gunearen ondoan; ahal dela etxeagatik *ezer* ordaindu gabe, noski. Baina begira zer esaten dizuedan: zientziaren izenean, prest nengoke EAJri botoa behin emateko ere, ikertzeko sortzen ote duen adikzio klaseren bat, Eroskiko fidelizazio txartelaren moduko zerbait izan daitekeen.

Talaia paregabe honetatik, beraz, zientziari eskaintzen diot nire gorputza, eskuzabalki. Azkar onar nazatela, hori bai, sukarraldia pasa baino lehen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"KITXUA HIZKUNTZAK EZ LUKE LOTSATZEKO ARRAZOI IZAN BEHAR"

ROXANA QUISPE COLLANTES, PERUKO LITERATURAN ADITUA

Historian lehenengo aldiz kitxuaz idatzi den doktoretza-tesiaren egilea da Quispe: "Kitxua hizkuntzak ez luke lotsatzeko arrazoi izan behar, eta ez soilik etxean hitz egiteko, sukaldean, lagunartean, profil baxuko solasaldietan, ez; nire nahi handietako bat izan da kitxua akademia munduan sartu ahal izatea". Peruko beste 47 hizkuntzek garrantzi bera dutela gaineratu du. Perun, 3.800.000 biztanle inguruk aitortu du kitxua jatorrizko hizkuntza duela.

TVPERÚ NOTICIAS (2019/10/20)

EKONOMIAREN TALAIAN

Enpresen “askatasuna”, langileen osasunaren gainetik

JUAN MARI ARREGI

Espainiako Konstituzio Auzitegiak baja laboralagatik langileak kaleratzea babestu du, baja hori justifikatuta egonda ere. Kataluniako langile baten salaketari erantzun dio, berrogei egunetik bederatzitan lanera joan ez zela-eta kaleratu zutelako.

Konstituzionalak absentismoa gelditzeko lan-erreformaren artikulu bat baliatu du. Artikulu horren arabera, arrazoi objektiboagatik langile bat kaleratu daiteke –lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko indemnizazioarekin–, baldin eta bi hilabetez jarraian lanegunen %20tan huts egiten badu edo lau hilabetean %25ekoa bada hutsegitea. Beraz, auzitegiaren arabera legala da egun kopuru horietan lanera joaten ez den pertsona bat kalera botatzea.

Erabakia ez da aho batez hartu, baina Konstituzionalaren ondorioetako bat da lanerako eskubideak baduela muga bat: “Enpresaren askatasuna eta bere produktibitatearen defentsa”. Baieztapen horrek PP eta PSOEren erreforma laboralarekin bat egiten du, baina okerrago dena, kapitalismo basatienaren tesiak justiziaren arloan ere onartzea dakar, enpresaren askatasuna laneko osasunaren gainetik jarriz.

Epaiak generoaren araberako diskriminazioa ere egiten du, emakumeak baitira gizonezkoak baino askoz gehiago lanegun bikoitza jasaten dutenak: soldatapekoa eta zaintzakoa. Horrek euren osasun egoera kaltetzen du erabat. Ez da kasualitatea epaimahaiko emakume bat erabakiarekin ados ez egotea.

Ez ginateke alarmismoan eroriko esango bagenu kapitalismo bat sortzen ari dela “ageriz kriminala den etorkizuneko proiektua” duena, Carlos Taibo idazle eta irakasle madrildarrak berrikitan azpimarratu duen bezala. Konstituzio Auzitegiaren sententzia norabide horretan doa. ●

ANALISIA

EAJ, “espainiar demokrazia”-ren indar homologatzaile nagusia

MIKEL ASURMENDI

Espainiako Erresumako Gorteetarako hauteskundeak izateko zorian gaudela –ez ospatzeko zorian–, “espainiar herritarron” osasun politikoa Zainketa Intentsiboetako Unitateetan dagoelarik (UVI), honatx bizi dugun panoramaren nire analisia.

Spain, *spam* –zabor poltsa– begitantzen zait. Tira, herritar guztiak zabor poltsan sartzea ez da bidezkoa, alabaina, ezin dut buxatu erromatarren konkista garaitik datorren Hispaniatik eratorritako izenak ezpainetara igoarazitako goragalea.

Espainiar Inperioa suntsitzen ari da. Iraganeko *Más se perdió en Cuba* edota *Los últimos de Filipinas* esaldien antzekoak ezpainetaratuko dira etorkizunean. Demagun, hogei urte barru: *“Va valer la pena haver sofert la dermatofagia / Merezi izan zuen dermatofagia jasan izana”*, erranen dute katalanek.

Anartean, mendez mende eraikitako Espainiak –Espainiako jendarteak historian bi aldiz Errepublika aukeratu zuen, bigarren aldikoa Francoren *Alzamiento Nacional*-ak deuseztatua– 40 urteko diktaduraren eta 40 urte luzeko “demokrazia”-ren ostean ezin izan du sistema demokratikoa gauzatu. Ez erresumak, ez estatuak, ez herritarrek.

1936ko Gerra Zibilaren ostean, AEBek espainiar diktadura homologatu zuten legez, halaxe homologatu du ere Europar Batasunak egungo “espainiar demokrazia”. Artean, gu, euskal herritarrok, gero eta europarragoak izaki.

Pertsonek egiten dute historia, baina gurean, konparazionera, Jose Antonio Agirre eta Iñigo Urkullu lehendakariek ez dute berdin egi(te)n –alderdi berekoak izanik ere–, edota ez dira berdin egiten ari Urkullu eta Juan Jose Ibarretxe.

“Espainiar demokrazia” izaterik ez, eta eskuin bakarra zena hiru alderdik ordezkatuta dago egun: PP, *Ciudadanos* eta VOX. VOX omen da faxista, alderdi demokratikoa ez dena. Alabaina, beste biek funtsean ederto betetzen dute haren praxia. Horren dudarik ez dago, ez dauka ezta espainiar herritarren gehiengoak ere. Esaterako, PSE-EE, PSN edota PSC bozkatzen duten gehienek halaxe pentsatzen dutelakoan nago, alta, PSOEk “ezinbestean” betetzen du espainiar frankisten praxia.

Horraino gaitza. Eta gaitz erdi! Jendarte katalana bederen indartsu baitago. Izan ere, Euskal Herria ez dago Kataluniaren heinean. Euskal Herrian EAJren “Euskadi” gailendu da. Botere eta izate bakarra. Hauteskundez hauteskunde, EAJ garaile jalgitzen da EAEn. Euskadiko euskal herritar gehiengoaren konfluentzia –ideologia suerte guztien botoak– EAJn batzen da. Europar Batasunak “espainiar demokrazia” homologatu behar duen legez, halaxe behar du Espainiak EAJ ere. EAJ “espainiar demokrazia”-ren indar politiko funtsezko homologatzailea baita. Ez bakarra, bai nagusia. ●

ASIERSANGAR

ERASO FAXISTEN AURREAN, AUZOLANA

BILBO. Urriaren 27 gauez egindako eraso faxistaren ondorioz, Bilbo Zaharra pintaketa faxistaz josita agertu zen. Hainbat mural eta lokali egin zioten eraso. Espainiaren batasunaren aldeko eta independentziaren aurkako pintaketez gain, Faktoria Lila eta Pikara Magazinen lokaletan feminismoa izan zuten jomuga: "Soros-en putak" idatzi zuten. Bi lokal horiek deituta, eta "Margotu, sistah!" lelopean, pintaketak ezabatzeko auzolan feministaren egin zuten 28 arratsaldean bertan.

KLIMA ALDAKETA

300 milioi

pertsona bizi dira 2050. urtean urtero uholdeak jasateko arriskuan dauden itsasertzeko eremuetan, eta kopuru hori 360 milioi pertsonara igoko litzateke mende amaieran, *Nature Communications* aldizkariak argitaraturiko ikerketaren arabera.

Euskal Herriko kostaldeko herri ugariri eragingo liokete uholdeek, Muskizetik hasi eta Baionaraino.



Erasoa Baionako meskitaren eta musulmanen aurka

ARGIA

Gizon batek molotov koktela jaurti zuen urriaren 28an Baionako meskitaren atean. Barruko bi gizon gerturatzen ikusita, haiei tiro egin eta biak balaz zauritu zituen. Frantziako Poliziak Landetan atxilotu zuen erasotzailea.

FRONTE NAZIONALEKOA

Erasotzaileak Claude Sinké du izena, 84 urte ditu eta militar ohia da. 2015ean, Fronte Nazionalaren hautagaia izan zen. Gizonari proba psikiatrikoak egin ostean, Parisko Terrorismoaren Aurkako Fiskaltzak erabaki du kasua ez duela bere gain hartuko, Sinkék bere ekintzen gainean kontrolik ez zuela iritzita.

ISLAMOFOBIA

"Islama eta musulmanak estigmatizatzen dituen egungo giroan, ez da harrigarria halakoak gertatzea", adierazi zuen Fede Musulmanaren eskualdeko Batzordeko ordezkariak. "Kezka handia dago hiriko komunitate musulmanean".

AURREKARIAK

Ez da izan meskitak jasan duen lehen erasoa. 2017an bi molotov koktel jaurti zituzten meskita barrura, eta 2015ean pintaketa arrazistak egin zizkioten, *Charlie Hebdo* aldizkariaren aurkako erasoa jazo ostean.

IRATXE SORZABAL. Parisko Dei Auzitegiak onartu egin du Espainiako Auzitegi Nazionalaren euroagindu eskaera. Euskal presoaren abokatuak azpimarratu duenez, Sorzabalek 2001ean Guardia Zibilaren torturapean egindako adierazpenetan oinarritzen da Auzitegi Nazionala.

ZELATATUAK. Telefono mugikorrak zelatatuko dituzte zortzi egunez, Espainiako estatistika institutuarentzat datuak biltzeko. Norbanakoek egunerokoan, jai egunetan eta landa eremuetan egiten dituzten desplazamenduak ezagutu nahi ditu ikerketa horrek.

SANFERMINAK 78 GOGOAN! Kereila jarri diete Juan Ignacio Zoido eta Fernando Grande-Marlaskari, 1978ko Sanferminen inguruko agiriak ezkutatzeagatik. Sanferminak 78 Gogoan! elkarteak eta poliziak hildako German Rodriguezen anaiak jarri dute kereila Espainiako Barne ministroen kontra.

GALESTARREK ZOR EKOLOGIKOA ARINDU NAHI, **10 MILIOI ZUHAITZ LANDATZEN LAGUNDUZ UGANDAN**

Babestu oraindik dauzkagun ondasunak, berreskuratu mendeotan hondatu ditugunak eta hori guztia egiteko lanak diruz hornitu –ingelesez *Protect, Restaure, Fund* diotena–. Horiek bederen beharrezkoak dirateke mundua eta mundutarrok klimaren zoratzetik eta izaki bizidunen extintzio masibotik onik ateratzeko. Gaizkiaren kontrako protestak ez baitu zertan oztopatu ongiaren aldeko borroka, oihanen biziberritze ahalegin baten oihartzuna zabaldu da Ugandatik.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Klima aldaketari eta extintzio masiboari aurre egin eta gizadiak biziraun nahi baldin badu, erregai fosilak erretzeari uztea soilik ez du aski izango, dio Greta Thunbergek zabaldu berri duen bideoan. Zer gehiago egin? Hasteko, landatu zuhaitzak, "aireari karbonoa kentzen dioten makina oso merke eta bere kasa hazten diren" horiek.

Urriaren 11n Ugandako Mbale eskualdean hamar milioigarren zuhaitza landatu zuen Leah Namugerwa, alboan zituela Makunda herriko eskolako gaztetxoak. Egun eta ordu berean handik urrun, Britainia Handiko Galesen, beste zuhaitz bat ari zen aldatzen Mark Drakeford lehen ministroa. Mbaleko basoberritze programa galestarren diruz lagundua baita, horrela ospatzen zuen Galesek eremu deforestatu bat lehengoratzeko ahaleginean lortutako arrakasta.

Kronika berezia merezi luke 14 urte dauzkan Leah Namugerwak, halako oihartzuna lortu du Afrika erdialdean, Suedian Thunbergek abiatutako *Fridays for Future* mugimenduaren ildoan. Urtebete darama Namugerwak ostiralero klimaren alde eskolari opor egiten. Sare sozialetan hedatzen dituen mezuetan ageri da gizarte gai bero guztiez –homofobiatik plastikoen kutsadurara– kezkatutako neska ausarta. Ugandako deforestazioaren kontra daraman borrokari laguntzeko sustatzen du jendearen urtebetetzeetako oparia izatea zuhaitzen landaketa.

Argazkietan ikus daitekeenez, Namugerwaren ondoan ospakizunean parte hartzen zutenek hurrengo helburua aldarrikatzen zuten: 15 milioi zuhaitz landatzea. *Mbale Trees* (Mbaleko zuhaitzak) programaren webean irakur daitekeenez, ondo bidean 2025erako gaindituta eduki beharko lukete 25 milioi zuhaitzen langa.

Mbale Trees programa Ugandako eskualde hartako elkarteen, Galesko Gobernuaren eta herritarren arteko elkarlanaren emaitza da. Ugandako ekialdean, Elgon mendiaren inguruan dagoen Mbale eskualdea baso berriz hornitzea da plana. Elkarlanari ikusgarritasuna emateko-edo, Galesen sortzen den –edo adoptatzen den– haur bakoitzeko, gobernuak bi zuhaitz landarazten ditu: bata Galesen eta bestea Mbalen.

Programako milioika zuhaitzok Mbalen bertako jendeak kudeatutako 39 mintegitan hazten dituzte. Hauetako gehienak agro-oihangitzarako espezieetakoak dira, zuhaitzak eta laboreak uztartzen dituen nekazaritza erediurako egokiak. Baina azkar hazten diren zuhaitz landareak ere ekoizten dituzte, lekuko jendeak eguneroko bizitzan dauzkan beharra asetzeko, funtsean sutarako egurretarako.

"Zuhaitzok –dio antolakuntzak– eskainiko dute janaria, erregaia eta eraikuntzako materiala, baita diru sarrera bat ere, txirotasuna arintzeko. Baina, gainera, jendeak babestuko ditu deforestazioaren ondorioz hilgarriak gertatzen ari diren lubizietatik".

450.000 biztanle –kilometro koadro 850, Bizkaiak 522 ditu, pentsa...– daukan Mbale distrituan lubiziok gero eta maizago gertatzen dira. Aurten ekaineko euriteek eragindakoek sei herritar hil eta beste 600 utzi zituzten etxe barik. 2018ko urrikoak are latzagoak suertatu ziren, 120tik gora hildakorekin.

Eskualdeko nekazarien elkarteek osatutako Mt. Elgon Agroforestry Communities Cooperative da Galestik finantzatutako basoberritze programaren lekuko partaide nagusietakoa. Hiru mila laborari biltzen ditu, gehienak *Arabica* motako kafe primerakoa ekoiztu baina, aldi berean, saltzeko neke handiak dituztenak: "Gure herrixkak oso urrunduak daude eta zail egiten zaigu gure kafea munduan zehar ezagutaraztea".

Urruntasunaz gain klimaren aldaketaren kalteak ere nozitu dituzte Elgon mendiaren magaletako baserritarrok, euriak aldatu egin dira, ekaitzak gogortu eta ugaritu, eta lubiziek etxalde asko hondoratu dute. Labore bakarrean, kafean, apustu egin izana ere pairatu dute, aurreko kooperatibak porrot egiteraino. Horregatik orain esportatzeko kafeaz gain lekuko merkaturako ekoiztu nahi dituzte bananak, barazkiak, esnea, eztia, eta abar, agro-oihangintza ereduan soroak zuhaitz eta basoekin indartuta.

GURE ETXEA ADINAKO BESTE BAT ZAINDU

Ugandako basoberritzea sustatzen duen proiektu europarra *Size of Wales* deitzen da ingelesez eta *Maint Cymru* galesez: euskaraz esango genuke Galesen tamai-

LEA NAMUGERWA ARGAZKIAN, GALESKO ORDEZKARIAREKIN HAMAR MILIOIGARREN ZUHAITZA ALDATZERAKOAN. GAZTETXOEK BATEAN ALDARRIKATU ZITUZTEN ZUHAITZ GEHIAGO LANDATZEA ETA KLIMAREN ALDEKO GREBAK.

na edo Gales adinakoa. Alegia, bi milioi hektareako azalera daukan Galesek bere gain hartu duela munduko beste nonbait beste bi milioi hektarea oihan tropikal babesteko ardura.

Galesek historian zehar eten gabe ikusi ditu bere oihanak murrizten eta azken urteotan ari da ahaleginean zuhaitz eta hesi landaketan. "Hala ere –diote proiektuko arduradunek– bai klimaren aldaketaren eta bai txirotasuna murriztu beharraren ikuspegitik, munduarentzako benetako kezka tropikoetako oihanen suntsitzeak eragiten du, horrek bertan bizi diren jendeen elikadura, bizileku eta bizi mailan dakarzkien kalteekin".

2010ean Galesko Gobernu autonomoak fundaziotzat sortu zuenetik Afrika eta Latino Amerikako hogei proiekturi lagundu die Size of Walesek, tartean Ugandako *Mbale Trees* programari. Galesen azalera adina hektarea oihan babestea aipatzen dute: bi milioi hektarea, bestela esanda, bi milioi errugbi zelai. "Baina planetako oihan tropikalen galerak abiadura beldurgarrian jarraitzen du, urtean 12 milioi suntsitzen dituzte, 4 milioi Afrikan bertan".

Size of Walesek ez du oihan tropikalik erosten, ez erosketarik sustatzen: "Benetan uste dugu bertan bizi den eta bizimodua oihan horietan daukan jendeari lagundu behar diogula haiek zaindu ditzaten eta beren umeei pasadu diezaizkieten, ez dizkiegula erosiz kendu behar".

Basoen suntsitzeak klimaren aldaketan daukan eraginaz bezala zuhaitz landaketek arazoa erremediatzeko –karbonoa atmosferatik ateratzeko– daukaten ahalmenaz asko eztabaidatu da azken denboretan. Joan den uztailean *Science* aldizkari zientifikoak plazaratu zuen "*The global tree restoration potential*" ikerlana, hedabide nagusiek *CBS*-rena bezalako tituluekin laburbildu zutena: "*Bilioi bat zuhaitz landatzea litzateke klimaren aldaketarentzako 'konponbide eraginkorrena', dio ikerketa batek*". Bilioi bat zuhaitz... lekutan gaude!

Oihan landaketa masiboen mugez eta alde eztabaidagarriez asko ikasi da urteotan, batik Afrikako Sahelen eta Txinan frogatutako esperientzietatik. Size of Wales asmoaren ahuldadeak ere –diru urritasuna barne– nabarmenak dira. Baina ideiak badu bere indarra euskaldunontzat: elikagaiak bezala natur baliabide ia denak kanpotik dakartzagunok, ez al dugu basoberritu behar gure lurraldea eta gurea adinako beste bat... gutxienez? ●

Amaia Gonzalez de Gamarra

LEKUKO BIZIA GASTEIZEN

“ORDUKO SASOIA BANU, BURU-BELARRI SARTUKO NINTZATEKE SALTSAN”

2016ko azaroaren 10ean hartu zuen zerurako bidea Izaskun Arruek, Arabako lehen andereñotzat jotzen denak. 1963ko abenduaren 4an, zenbait gurasok Arrueren etxera eraman zituzten beren seme-alabak. Besteak beste, Amaia Gonzalez de Gamarrak. Oraingo eguneko ikastolen hazia erein zuten.

MIEL A. ELUSTONDO ZALDI ERO

Izaskun Arruek ARGIAn (1970. zbkia, 2009ko abenduak 12) aspaldi esan zigunez, gurasoek jaso behar zuten, eta ez berak, Gasteizko lehen ikastola haren merezimendu osoa. Zuk zeuk, eta zure modukoek, alegia. 1936an Gasteizko Pintore kalean jaioa, eta Amaia izena?

Amaia Mertzedes Gregoria ditut izenak, baina Amaia izan naiz beti, nahiz euskarazko izenik garai hartan ez zen onartzen. Gerra hasi berria zen jaio nintzenean. Giroa, pentsatuko duzu. Gozoa ez beste guztia. Ni jaio eta nire izena ematera joan zen aita erregistrora. Han, jaiotza-agiriez arduratzen zen gizona gure aitaren lagun handia zen, Maison, baina ez zen modurik: “Kepa, ezinezkoa duk zuen alabari Amaia izena jartzea!”. Eta, orduan, aitak esan omen zion zelako Maison hari: “Batere izenik ez jarri orduan!”. Eta alde egin zuen.

Eta zure izena?

Berehalaxe esango dizut... Aitak alde, eta egunkarian, jaiotzen berri ematen zuten ataltxoan, “Pedro Elena” eman zuten nire izena, Andre Dena Helenaren egunarekin etorri bainintzen mundura. Aitaren Pedro, eta izendegiko Helena jarri zizkidaten, eta luzaro, irakasle ikasketak egiten hasi nintzen arte, horretan iraun zuen nire izenak erregistroan. Nahiko ezustean jabetu nintzen, beraz, urte asko igaro eta gero. Irakasle ikasketak egiten hasterako, jaiotza-agiria eskatu zidaten. Erregistrora joan, eta hantxe nire izena, “Pedro”! Etxera joan eta aitari esan nionean, berak: “Maisoni esatera noa oraintxe bertan, zuzen dezan!”. Baina, segituan: “Ez alferrik. Maisonek aspaldi utzi zion erregistroko lanari”. Amak ez zuen barkatzeko asmorik, ordea: “Egin ezazu nahi duzuna, baina, nortara edo hartara, hobeko duzu zure alabaren izena zuzendu”. Eta aitak: “Baina ez didate Amaia izena jartzen utziko”. Eta amak: “Jarri orduan Amaia Mertzedes. Zure amaren izena ere jarri”. Eta amamak, azkenean: “Horretaraz gero, jarri gure ama zenaren izena ere”. Eta horrelaxe, Amaia Mertzedes Gregoria nauzu.

Amaia Gonzalez de Gamarra Sagastegi

GASTEIZ, 1936

Abertzaleak izan zituen gurasoak Gasteizen, eta abertzale hazi zen bera ere. Abertzalea izan zuen senarra, eta zaletasun berean ditu seme-alabak. Irakasle ikasketak egina 1954an, Espainia hegoaldera destinatu zuten, baina ez zuen hara nahi izan. Etxeko tabernan lan egin zuen, eta hiriko giroa bizi izan zuen han: frankismoa, errepresioa, politika... 1963an, Izaskun Arrueren ikastolara bidali zuen lehen umea. Eta, lehenengoaren pausoan, ikastolara bidea egin zuten Amaiaren gainerako bost seme-alabek ere.

Aitaren izena ere ez da debaldetan emana: Kepa esan duzu. Izen sabindarra.

Aita Arabako Euzko Alderdi Jeltzalearen fundatzailea izan zuen: Pedro Gonzalez de Gamarra Alava. Etxean ere Alderdikoak izan ziren, eta hortik, aitaren izena Kepa. Gasteizko Aurrezki Kutxan egin zuen lan, eta Kepa esan izan zioten denek beti. Erregistroan, berriz, Pedro Gonzalez de Gamarra Grazianteparaluzeta zen. Abertzale sutsua. Bakea kaleko kartzelan eduki zuten urtebetez, 1951tik 52ra, langileek greba egin zutelako. Nik ez dakit noraino zabaldu zen greba hura, baina badakit ez zela Gasteizko edo Arabako kontua bakarrik izan, hemengoak ez ezik, bizkaitarrak eta giputzak ere eduki zituztelako hemengo kartzelan. Gogoan ditut haien izenak: Guillermo Acosta, Alberto Ruiz, Koldo Goikoetxea, Antonio Perez Cuadrado, Manolo Garcia Andoin... Bilbo aldetik ekarri zituztenak, berriz, Sarasketa eta Urrutia. Eta Donostiatik, Larrea, Garaikoetxea, Miner eta besteren bat.

Arraioa! Nolatan dakizkizu izenok?

Egunero joaten nintzelako kartzelara aitari jatekoa ematera. Egunean hiru aldiz joaten nintzen: gosaria, bazkaria eta afaria eramaten nizkion. 1951ko maiatzaren 19tik 1952ko maiatzaren 13ra eduki zuten aita preso. Gero, aita kartzelatik irten bazen ere, hantxe iraun zuten batzuek, barruan. Guk jatetxea genuen, eta artean preso zeudenei jatekoa emateko agindu ziguten. 14 urte nituen, eta goizez irakasle ikasketak egiten hasi nintzen. Arratsaldez, etxeko tabernan egiten nuen lan. 1954an bukatu nituen ikasketak, Gasteizen bertan, Parte Zaharrean, orain gaztetxea eta Euskararen Etxea dauden inguruan, udalaren hezkuntza zerbitzuak dauden eraikinean.

Nolakoa zenuen orduko Gasteizko giroa?

Errepresioa. Ez da beste hitzik orduko hura deskribatzeko. Hara, aita Kataluniako frontera eraman zuten nik 2 urte eta zerbait nituela. Arestian esan dudanez, aitaita-amamek taberna zuten, eta hantxe zen gure ama lanean, eta hantxe neu ere. Gerratik itzuli zelarik, aita zigortuta eduki zuten, lanik eta soldatarik gabe. Gipuzkoako soldaduak Gasteiza bidaltzen zituzten lehenengo, eta gero, hemendik, batera eta bestera destinatu zituzten. Haietako gehienek euskaraz hitz egiten zuten, eta izebak ni hartu eta tabernako barran jartzen ninduen, esanez: "Esan gazte hauei ikasi duzun bekatu hori". Nik ezetz, aitak errieta emango zidala. Baina izebak baietz eta baietz, esateko. Eta, azkenean, nik, isil xamar, esaten nuen: "Gora Euskadi Askatuta!".

> ***"Egia da Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorritako euskaldun askok ikastolara bideratu zituztela umeak, baina ordurako abian zen hemengo ikastola"***

Horretaz oroitzen zara...

Bai, eta baita irakasle ikasten hasi nintzenean besoa gora *Cara al sol* kantatu behar izaten genuela ere. Ni, berriz, inoiz ez nintzen hura kantatzera garaiz heltzen. Jakina, atean gelditzen nintzen, barrukoek *Cara al sol* kantatzen bukatu arte zain. Berandu heltzen nintzenez, oker eginaren oharra jartzen zidaten, baina bost axola niri. Urte latzak izan ziren, oso latzak ere! Eta aita barruan. Zertan eduki behar zuten gure aita kartzelan urtebete? Ez zuen odol deliturik, ez armarik, eta ez zuen txikiziorik eragin. Badakit greba prestatzen parte hartu zuela, Isaias eta Juan Grajalesekin batera, adibidez, baina, era berean, badakit greba egun hartan aurrezki kutxen batzarra izan zuela aitak. Badakit, ni berarekin joan nintzelako. Eta ilunduta itzuli ginen batzar hartatik etxera. Berdin da: biharamunean, polizia jendea atxilotzen hasi zen, gazte sasoikoak hebain-hebain egiten hitz egin zezaten, eta gure aita kartzelara, beste hainbatekin batera. Urtebete! Irakasle ikasketak bukatu nituelarik, titulua eskuratu ahal izateko nahitaezkoa zen falangeko instruktore ere izatea, eta hogeita bi egun eduki ninduten Sobronen, zigortuta, aita kartzelan nuelako.

Esan duzunez, 1954an bukatu zenituen irakasle ikasketak.

Baina ez nuen askorik erakutsi. Ez zegoen erraz. Hemengo irakasleak Espainia hegoaldera bidaltzen gintuzten destinatuta. Niri, adibidez, Extremaduran eman zidaten irakasle destinoa. Eta etxean galdetu nuen, zer iruditzen ote zitzaien. Eta gurasoek ere nik bezainbat duda zuten. Bai, irakasle izateko ikasi nuen, baina hain urruti joan beharra ere. Tarte horretan, Gasteiz ondoko Eharin

maistra ari zenak esan zidan ordezkapenak egin ahal izango nituela haren eskolan. Baita egin ere. Eskolak eman nituen bi hilabetez, haren ordez. Baina inork ez zidan batere ordaindu. Horrela ezin, bada, aurrera egin. Aldi berean, etxeko taberna ere hor zen, eta han ere dena beharrean izaten ziren.

Garaitsu hartan ireki zuen Pedro Anitua abadeak Ikastun Eskola, ikasketak bukatu eta lanera bidean ziren mutilentzat. Eta neskentzakoa ere zabaldu zuten, Villa Nieves izenekoan. Ramon Narbaiza abadea ere han zen, Anituarekin batera.

Senarrak kontatuta jakin nituen hango kontuak, Narbaizak erlijio eskolak ematen zituela Ikastunen Eskola hartan, baina honetaz eta hartaz hitz egiten zutela, "aberria egiten" zutela, mendi ibilaldiak egiten zituztela igandeetan, eta hau eta hura. Gauza klandestinoak. Tira, orduan dena zen klandestinoa. Esaten dizut, senarrak kontatuta jakin nituen horiek denak, zeren eta nik ez bainuen mugimendu hori bizi izan, beti tabernan sartuta lanean ari nintzelako. Esaterako, senarra izango nuena ere gure tabernan ezagutu nuen, 1952an. Lagun Onak koruko kantaria zen, eta askotan etortzen ziren gurera. Txirinbil dantza taldekoa ere bazen, eta ez da asko esatea gure tabernan zutela egoitza. Batzarrak, behintzat, hantxe egiten zituzten. Pentsatzen hasiz gero, gauza asko egosi ziren gure taberna hartan. Eta poliziak ere bazekin zer edo zer, eta behin edo behin pertsiana jaitsi behar izan genuen, grisek aginduta. Oroitzen naiz behin, Franco katedral berria inauguratzera zetorrelako, nonbait, jende mordoa hartu zutela preso, eta sukaldeko armairua lozakuz eta tapakiz betea izan genuela; preso hartu zituzten haientzat, alegia.

Giroa hori zuen inguruan, zer dela-eta bidali zenuten 1963an seme zaharrena Izaskun Arrueren etxera euskaraz ikastera?

Egun batean, etxeko laguna, Kepa Grajales, tabernara sartu zitzaigun, eta honetaz eta hartaz ari ginela, galdera egin zigun: "Zein eskolatara eramaten duzue umea?". Gure lehenengo semeari buruz ari zen. "Eskolara? 3 urte besterik ez ditu-eta!". Garai hartan 5 urte beteta hasten baitziren neska-mutikoak eskolara. Eta Kepak: "Gurea Izaskun Arrueren etxera eramaten hasi gara". Izaskunen izena aditu eta piztu egin nintzen. Izaskun askotan izan genuen tabernan, bere senarrarekin, eta ezagutzen nuen. Horrela, Kepari Izaskunen etxeko helbidea galdetu eta haraxe gure lehenengo ume hura, Pedro. Izaskun euskaraz hasi zitzaidan, nik batere ez nekiela esan nion, baina, hala ere, gure semeak euskaraz jakitea nahi nuela. Berak baietz, eta horrelaxe.

AITAITA

"Aitaita Arabako EAJren fundatzailea, aita eta izeba Margarita ere Alderdikoak. Amak ere nahi izan zuen Alderdian sartu, baina ez zioten utzi, Kubako naziotasuna zuelako. Gurasoak hantxe izan ziren lanean, eta hantxe jaio zen nire ama. Hargatik ez zioten Alderdian izena ematen utzi, Franco hil ondoko egoera politiko berria heldu arte".

IZASKUN

"Bera izan zen Gasteizko ikastola hartako lehen andereñoa, baina, azkenean, baztertu egin zuten, edo bere burua baztertu zuen, euskara batuarekin ados ez zegoelako. Elkar ezagutzen genuen, eta batak bestea estimatzen genuen. Oroitzen naiz nola esaten zidan munduan korrika gehien egiten zuen emakumea nintzela. Izan ere, bateko etxea, besteko taberna, eta seme-alabak batetik bestera beti... ez nintzen gelditzen".

Azken hitza

SARIA, AZKENEAN

"Bizimodu zaila izan dut, oso zaila ere, baina, gaitz erdi, saria jaso dut azkenean. Inoizko seme-alabarik onenak ditut, errainik onenak, suhirik onena, eta munduan izan litezkeen bederatzi bilobarik zoragarrienak. Horixe dut sari!".

Zer zioten zuen etxekoek?
Zer esango zuten, bada. Haiek pozik. Gure aita, esate baterako, Arkupe plazako batzokian ibili zen gerra aurretik. Euskaraz ere ikasten zuten han, eta zer edo zer bazekien. Ahal zuena euskaraz esaten zion bilobari. Lehenengo semearen ondoren, bigarrena ere, Patxi, Izaskunen etxera hasi zen. Hirugarrena, Amaia, Estibaliz hiribideko ikastolan ibili zen, gero jaiotako Jon eta Mikelekin batera. Azkenak, Asierrek, Lasarten ikasi zuen, oraingo Olabide Ikastolan.

Izaskunen etxean hasi ziren lehen ikasleak, eta gero, hura txiki eta, esan duzunez, etxea hartu zenuten Estibaliz hiribidean. Garai hartan, zure irakasle titulua utzi zenion ikastolari.
Ikastola legeztatzeko garaian erabil zezaten. Baina nik ez ezik, beste batzuek ere utzi zioten irakasle titulua ikastolari. Maria Teresa Fernandez de Pinedok, adibidez. Baziren beste bi ere, Jone eta Miren Arbulu ahizpak, gurekin batera ikasi zutenak irakasle. Titulua uzteari dagokionez, orduan ere Peli Martin Latorre etorri zitzaidan, nire senarrarekin batera ari baitzen lanean. Nik eragozpenik ez nuen izan titulua uzteko. Gehiago ere esan zidan Pelik: "Eta egun jakinen batean ere ikastolara etorri beharko zara, ikuskatzailea etortzen denerako". Eta, horrela, oroitzen naiz Estibalizko ikastolan eman nituela zenbait arratsalde irakasle lanetan, benetako andereñoa ondoan nuela.

Diotenez, iragan mendeko 60ko hamarkadaren hasieran Gipuzkoatik eta Bizkaitik Gasteizera industriarekin batera etorritako jendeak hiriburuko giroa aldarazi zuen, euskara ekarri zuen.
Ez dakit, bada. Gipuzkoatik eta Bizkaitik euskaldun asko etorriagatik ere, askoz gehiago etorri ziren Espainia hegoaldeko herrietatik. Egia da ondoko lurraldeetatik etorritako euskaldun askok ikastolara bideratu zituztela umeak, baina ordurako abian zen hemengo ikastola. Izaskunen ikastola abiarazi zutenak, denak, hemengoak ziren. Arriola, Lopez de Lacalle, Arantzabal, Grajales, gu geu... Kanpotik etorritako bakarra, izatekotan, andereñoa bera genuen, Izaskun, nafarra.

Eta oraingo giroa ikusi, oraingo haur, gazte eta helduak, ikusi euskara... Zer dio zure barruak?
Esango dizut hori ere. Orduko adina banu, eta orduko sasoia, buru-belarri sartuko nintzateke saltsan. Seme nagusiak ez lidake utziko, baina, hala ere, saltsan sartuko nintzateke. Berak bai, sartu behar izaten du, baina niri ez dit uzten. Gurean beti izan gara abertzale peto-petoak. Betidanik. Gure arteko zatiketa guztiak gorabehera, beti abertzaleak. Oroitzen naiz, behin, gure ama zena Luis Maria Sanchez Iñigorekin hizketan zela. Bero-bero, su eta gar ari zen Luis Mari, eta gure amak esan ziola: "Bai, zuzen zaude, arrazoi duzu, Luis Mari, baina ezin da dena egun batetik bestera lortu, kolpetik. Poliki-poliki egin behar dugu aurrera. Independentzia? Bai, dudarik gabe, baina goazen pausoz pauso". Uste berekoa naiz ni, zer esango dizut, bada. ●

Erraldoi teknologikoak

MIKEL ZURBANO
EHU-KO IRAKASLEA

Google, Apple, Facebook, Amazon eta Microsoft (GAFAM) gisako enpresa digitalak hazteko arrazoien atzean, orain arte ezezagunak ziren bi arauen bulkada dago. Hasteko, prozesagailuen potentzia biderkatzailea da, urtetik urtera bistakoa da hauen ahalmenaren igoera esponentziala dena. Bigarrenik, kostu marjinal zeroren legea dago, alegia sarean bezero bat gehiago izateak ez du kostu gehigarririk. Horregatik, arlo honetan teknologia mendean duenak produktibitatean aparteko hazkundeak ditu eta bere hedakuntza kostu gehigarririk gabe bidera lezake. Beraz, teknologia arloko enpresa liderren etekinak itzelak dira. Irabazleek dena irensten dute. Ekosistema digitalak munstroak sortzen ditu.

AEBetako GAFAM boskotearen finantza balioa Alemaniako BPGa baino garaiagoa da eta, egungo joerak jarraitu ezkero, Europako Batasuneko produktuaren gainetik kokatuko da hamar urte barru. Konkurrentziarako hobari gaindiezinak dituzte: marka globalak, adimen artifizialeko motore handiak eta, batez ere, ikerketa eta garapenean egindako inbertsio ikaragarria (70 mila milioi dolar, ia Erresuma Batuak egindakoaren adina). Lasterketa teknologikoak ez du erdibiderik onartzen, zenbaki handien logika jarraitzen du. Horrenbestez, erraldoi hauen zenbakiek eta tamainak herrialde aurreratu askoren bolumen makroekonomikoa gainditzen dute.

> GAFAM taldekoek erakusten dutena hauxe da: monopolio ahalmen izugarria, besteak beste, duten hazkundearen bizkortasuna dela eta

Gero eta ozenago entzuten ari da baita ere eragile ofizialen aldetik enpresa hauen gaineko kontrolak eta mugak ezartzeko garaia dela. Izan ere, aipatutako enpresek milioika herritarren datuak kontrolatzen dituzte eta informazio hori guztia elkartu eta saltzeko ahalmena dute. Beren plataformak mende berriaren merkatu erraldoiak dira, eskala izugarria dute eta dauden legeak ez dira gauza merkatu horien gaineko kontrol eraginkorra bideratzeko. Horren ondorio dira enpresa hauen irabazien igoera esponentzialak eta Europako Batasunak, modu lausoan bada ere, jarraitzen eta zigortzen hasi den zerga ihesa orokortua. Baina, GAFAM taldekoek erakusten dutena hauxe da batez ere: monopolio ahalmen izugarria, besteak beste, duten hazkundearen bizkortasuna dela eta, ohiko monopolio konbentzionalekin alderik ez duena.

Teknologi erraldoi hauek zatikatzearen aukera ere aztertzen ari dira. Elizabeth Warrenek –AEBetako Alderdi Demokrataren hautagaietako bat– 2020an boterea eskuratzekotan horixe egingo lukeela iragarri du. Mahai gainean dagoen beste aukeretako bat enpresa teknologiko handi horiek beren datuak lehiakideekin partekatzeko beharra litzateke.

Haatik, GAFAM enpresek dituzten erronka ugarien artean bata gailentzen da, munduko ekialdeko enpresa teknologiko erraldoiek planteatzen dutena, hain zuzen. Denbora gutxian Asian hamar berrikuntza kluster global sortu dira. Eta horien artekoak dira mundu mailako liderrak, izan ere Silicon Valley bosgarren tokira jaitsi da munduko berrikuntza klusteren zerrendan, Tokio, Seul, Shenzhen eta Pekinen atzean geratuta. Munduko erdigune teknologikoa zein ekonomikoa Pazifiko aldean birkokatzen ari da eta 5G bezalako teknologia estrategikoak han garatzen ari dira. Munduko lidergo teknologikoa auzitan dago eta Donald Trumpen erreakzio traketsek eta protekzionistek ez dute errealitate hori saihestuko. Posizio geoekonomikoen lehiak nolabait balazta lezake GAFAM enpresen monopolioaren kontrako uhin berria. Nolanahi ere, horrek guztiak erakusten du XXI. mendeko merkatu teknologikoak zein urrun dauden Adam Smith klasikoak iragarritako merkatu lehiakorreko "esku ikusezina"-ren arautik. Esan gabe doa, mende berriko ekonomia ulertzeko neoliberalak ez diren bestelako paradigmak behar dira. ●

Egon hadi lo



PAULA ESTÉVEZ

MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA

Garagardoa edaten duena, segituan da lo; lozorroan dagoena, bekaturik egin ezinik dago; bekatu egiten ez duena, zerura seguro! Beraz, edan dezagun agudo!".

XVII. mendeko logika-liburu bateko esaldi jostagarri baten itzulpen gutxi-asko jostalaria, horra. Zurrutaren apologiarik ez nuke egin nahi, ordea, eta esaldiaren laburpen edo aldaera sanoxeago bat ekarri nahi nuke gaur lerro hauetara, aldarri: "Lozorroan dagoena, bekaturik egin ezinik dago; bekatu egiten ez duena, zerura seguro! Beraz, lo egin dezagun luzaro!".

Heriotzak berdintzen omen gaitu behin betiko loan, pobrearen esperantza hauspotzeko herri-jakintza horrek irakatsi digunez; baina, hori baino lehen, behin-behineko loak ere berdintzen gaitu pixka bat. Boteretsua baita loa, inondik ere, eta artegagarria ere bai, ondo pentsatuz gero: "Morfinadun suge" bat, Unai Iturriagaren hitzetan. Gure hizkuntzan bertan nabari da zenbaterainoko ahalmena aitortzen diogun: guk "lo hartzen dugu", bai, baina berdin "hartzen gaitu loak" gu. Loaren atzapar samurretan gara kalteberen den-denok, eta kalteberatasun-aldi horrek, hala ere, segurtasuna ematen digu nolabait: bizirik iraunarazten digu. Azken batean, gizakiak denbora gehiago eman dezake jan gabe, lo egin gabe baino: hamaika egun, horixe omen errekor ofiziala. Ez alferrik, atzituak lo-ezinean edukitzea da tortura -molde ezagunenetako bat.

Sekula goserik pasatu ez dugunok (ez gara asko munduan) eta aspaldian goserik pasatu ez dutenek (horiek gehixeago agian) onartezintzat joko genuke gosea ekarriko ligukeen sistema bat; altxatu egingo ginateke (pentsatu nahi dut) erantzuleen kontra. Alabaina, lo-zorretan bizi gara denok, eta lasai antzean onartzen dugu hori, "dagoena dago" esanez, gure begi-zuloen beltza kasualitatea balitz bezala, halabeharra, jainko arraioren batek gure aurpegian negatiboan errebelatutako ilargi-erdi pare saihetsezin bat. Zonbi-saldo bat gara, kafeinomano madarikatuak, eta gorputzak arrastaka eramaten gaitu hara-hona, bateria erdi gastatuko androide disfuntzionalak bagina bezala... Baina normala omen. Alderdi politiko bakar baten programan ez duzu lehentasunezko konponkizun gisa aurkituko lo faltaren epidemia. Lan -baldintza erogarriak direla (txandakako lanaldiak, estresa...), zaintza-lan itogarriak direla (zenbat aldiz eteten zaio loa zaintzaile dabilenari?), argi- eta soinu-kutsadura dela...: azkenerako, lo erraz samarrekoa ez denak nahikoa lan du behar adina eta behar bezala atseden hartzen, eta, hori gutxi balitz bezala, hedabideek tarteka-tarteka gogoratzen digute, kulpak pertsonalizatzeko ahalegin temoso horretan, Massachusettseko Unibertsitatearen arabera-edo lo faltak bizi-itxaropena murrizten duela, eta gaixotzeko arriskua areagotzen. Beste larribide bat, lo lasai egiten izugarri laguntzen duena.

Nik dakidala, loa ez da giza eskubide bat, bere hartan. Joan den udan, ordea, Erresuma Batuan kanpaina deigarri bat hasi dute gobernuak loa eskubide gisa onar dezan (*#righttosleep*), argudiaturik herrialde horretan "lo-kalitate kaskarra" dutela hogeitabi milioi biztanlek, eta horrek ondorio ezin kaltegarriagoak dakarzkiola gizarteari. "Loa ez da pribilegio bat", dio, tinko, mugimendu horren manifestuak. Baina, mundua zer den, aldarriaren bultzatzailea ez da herritar -talde engaiatu (eta nekatu) bat: online koltxoi-denda bat baizik. Lo nahi gaituen sistema horrek berak salbatuko gaitu, seguru, sonanbulismo honetatik. ●

Hezkuntzak ez du telefonoa hartzen

ENEKO OLASAGASTI
ANTZERKIGILEA

Urte askotako borrokari esker lortu zen Arte Eszenikoetako Goi Mailako Eskola: Dantzerti. Baina eskola hori sortu aurretik inork antzezpenaren mundura inguratu nahi bazuen hainbat herri eta hiritan zeuden Antzerki Eskola xumeetara joatea beste erremediorik ez zuen. Lan beltza egin dute urtetan, gero oholtza gainean ikusten ditugun aktoreei prestakuntza eta eskarmentua eskaintzen. Garai bateko Basauriko eskolatik hasi eta Euskal Herriko geografian banatuta daudenetara: Gasteizko TAE, BAI, Artebi, Getxoko eskola… Eta seguru baten bat ahazten dudala.

Ondo gogoan dut Donostiako TAE sortu genuen garaia. 90eko hamarkada zen eta Antzerti eskola itxi berritan zegoen. Itxiera horrek ekarri zuen hutsunea bete nahian sortu genuen, eta horretarako hiriko hainbat nukleotako jendea elkartu ginen. Urte luzez antzezpena ikasteko aukera bakarra zen Donostian eta ia Gipuzkoan ere. Dantzerti sortzean ere berau hornitzeko harrobi paregabea izan dira eskola guzti horiek. Hainbat erakundetatik laguntzak jasoaz, nagusiki Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik.

Baina goizetik gauera, Antzerki Eskoletako arduradunak bildu zituen Kultura Sailak eta haien ardurapeko izateari utziko ziotela esan zitzaien, hurrengo ikasturtetik aurrera. Beraz, diru-laguntzarik ez zuten jasoko. Nonbait, Hezkuntza Sailaren ardura izatera pasako ziren. Hezkuntza Sailak horri buruz ezertxo ez bazekien ere. Hala jakinarazi ziguten haiekin izandako bilera batean. Ederra komunikazioa bi departamentuen artean.

Bestalde, Euskal Aktoreen Batasunetik (EAB) 1992ko urriaren 27ko 289/1992 dekretua berridazteko eskaera luzatu genion Hezkuntza Sailari. Dekretu horretan Udal Dantza eta Musika Eskolen funtzionamendua arautzen zen. Gure eskaera: eredu horretan Antzerkia sartzea eskola horiek benetako Arte Eszenikoetakoak bihurtuz (Antzerkia, Dantza eta Musika). Eskumena hori egiteko EAEn dago. Bilera horietako azkena duela urtebete egin genuen. Ordutik ezin departamenduarekin bildu gaia jorratzen segitzeko. Ez dakigu Kulturakoek haiekin hitz egiteko astirik izan duten urtebetean.

Ezin ukatu aukera paregabea dagoela, bai orain arteko Antzerki eskoletako egoera larriari irtenbidea emateko, baita behar bezalako Arte Eszenikoetako Eskolak edukitzeko ere. Azken batean Dantzertik nonbaitetik lortu beharko ditu eta ikasleak. Baina Hezkuntza Sailak ez du ardura hori hartu. Bueno, egia esan, telefonoa ere ez du hartzen. ●

Arzalpenak

LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
IRAKASLEA

Aparkatu nahian, parkingean sartu naiz. Barruraino joan arren, ez dut leku librerik aurkitu. Aparkaleku estua da, eta buelta emateko maniobra asko egin behar izaten da. Ez zait inporta, direkzio lagundua izanda dena delako erraza. Jeurt egiten nabilela, gizonezko adinkide bat dut begira-begira, inguruko ibilgailu guztiak mailatzear banengo lez.

Zuzendu dut autoa beste leku batera joateko, eta bikote batek kotxea aterako duela abisatu dit. Hurrean jarri naiz, zain eta pozik.

Begira neukan gizona leihatilara gerturatu eta, irribarre batekin, hasi zait esaten zelan egin behar nuen buelta errazago emateko, gidatzen jakingo ez banu lez.

Jator jokatu zuela pentsatu zuen, benetan, baina nik buruan jira-bueltaka nerabilen Rebecca Solniten liburuaren izenburua: *Gizonek gauzak azaltzen dizkidate.* So-egile orojakilea andrazkoekin. Ni ezagutu barik eta nire esperientzia gidatzen jakin gabe atrebitu zen ez eskatutako aholkua botatzen. Andre ezjakina baino ez zuen ikusi. Zeren aholku emaileak nire edadeko gizon bati gomendioa horrela emango zion? Ez, ezta? Beraz, *mansplaninga* jasan nuen, *arzalpena.* ●

Estrategia

JOXERRA AIZPURUA SARASOLA
INDUSTRIA INGENIARIA

Euskal Herrian dauden administrazio publiko guztiek, eta nabariki Eusko Jaurlaritzak, euren estrategia industrialean digitalizazioa erabiltzen dute ardatz gisa. Honen oinarrian dagoen ikerketa ere digitalizazio ahalik eta aurreratuena egitera zuzenduta dago.

Euskalgintzak eta kulturgintzak ere begiz jota dute digitalizazioa eta historikoki egiten den ikerketa helburu hori betetzera dator. Helburuak antzekoak izan arren, manufaktura-industria kudeatzeko *Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak* edo antzeko izenburua duten sailak erabiltzen dira, eta hizkuntza eta kultura kudeatzeko, berriz, *Kultura eta Hizkuntza Politika* edo antzeko izena duten sailak.

Esan gabe doa bi sail moten aurrekontuek ez dutela inongo zerikusirik, nahiz eta betidanik aldarrikatu manufaktura-industria eta hizkuntza eta kultura *Basque Country* markaren elementu bereizezinak izan beharko luketela eta ondorioz batzuen eta besteen estrategiak gurutzatu egin beharko liratekeela.

Azkenaldian euskararen alorreko ikerkuntzan jauzi esponentziala gertatu da, batetik, euskararen eta gaztelaniaren arteko itzultzaile automatikoari esker, eta bestetik, euskararen transkribapen tekniken hobekuntzari esker.

Azkenaldian euskararen alorreko ikerkuntzan jauzi esponentziala gertatu da, batetik, euskararen eta gaztelaniaren arteko itzultzaile automatikoari esker, eta bestetik, euskararen transkribapen tekniken hobekuntzari esker

Euskara-gaztelania itzultzailea ingelesera, frantsesera eta gainerako hizkuntzetara hedatzea lortuko bagenu, hau da, euskaraz esandakoa beste hizkuntzetan entzutea eta alderantzizkoa lortuko bagenu, gure manufaktura-industriak euskaraz lan egin ahal izango luke, eta beste tokitara esportatzekotan, robotek itzuliko lukete itzuli beharrekoa, dena delako hizkuntzara.

Euskaraldia-ren 2020ko ekinbideetako bat elkarteak euskarara hurbiltzen saiatzea izango omen da. Gure industrian euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai direnak gero eta gehiago direnez, borondatezko politikei politika errealak gehitu beharko dizkiegu; eta arestian euskararen kasuan aipatu berri ditugun jauziak, manufaktura-industriak dituen baliabideekin eta estatusarekin tratatzeko aukera ezin hobea dugu.

Izan ere, ez dugu ahaztu behar gainerako hizkuntzak interkomunikazio lanetan aurreratuta dabiltzala, eta tren hori galduz gero, urte gutxi barru, euskaraz bizi nahi dugunok orain baino zokorago bizi beharko dugula.

Adibidez. Demagun, telefonoz hots egiten digutela eta gaztelaniaz egiten digutela. Teknologiak gaztelaniaz esan diguten hori euskaraz entzutea ahalbidetuko baligu, euskaraz bizitzetik hurbilago izango ginateke, ezta? Bide horretatik abiatzeko, manufaktura-industriak adina baliabide eman behar zaizkio. ●

Jakoba Errekondok
sinatuta jasotzeko aukera

AGENDA SALGAI!
12€

Hemen duzu urte osoan egin beharreko lanen agenda, sasoi bakoitzari, hilabete bakoitzari eta ilargialdiari lotuta.

Baratzean, fruitu arboletan, lorategietan, basoan noiz zein lan egin? Erein, landatu, inausi, tratatu, uztak jaso, txertatu…

azoka.argia.eus
bizibaratzea@bizibaratzea.eus / 943 37 15 45

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus

ARGIA

AURTENGO GAIA: **Zuhaitzak**

EUSKAL HERRIKO V. JARDUNALDI FEMINISTAK

Salda badago, baldin eta zapore berriei irekita bagaude

Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministek gutxienez 3.000 emakume* batu dituzte Durangon, denak helburu berei lotuak: hausnartu, eztabaidatu, elkar ezagutu, antolatu eta mugimendu feminista autonomoaren aurrera begirako ildo estrategikoak zehaztu. Azaroaren 1etik 3ra, "Salda Badago" leloak metafora izateari utzi dio errealitate bilakatzeko. Parte hartze arrakastatsuagatik, noizean behin gainezka egin duen salda izan da dastatu duguna; bazterreko osagaiak erdira eramateko eragin zaionean, irakin eta erreduraren bat edo beste eragin duen salda.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA
LAIDA ZAPRE

*Emakume izendapenak genero sistema bitarraz gaindiko gorputz eta identitate askotarikoak barne hartzeko orduan mugak jartzen baditu ere, erreportaje honetan aniztasun horri egiten diogu erreferentzia emakumeaz hitz egitean.

2008an Portugaleten burututako Jardunaldi Feministen laugarren ediziotik hamaika urtera, Euskal Herriko mugimendu feminista berriz bildu da gutxi-gorabehera hamarraldian behin egin ohi duen hitzordu berezian. Batzeko arrazoia, baina, ez da hamarkada baten igaroa bezain sinplea; arrazoiak gehiago dauka urteen igaroak ekarritako aldaketen gainean arreta jarri, eta aldaketok geu, geure errealitateak eta Euskal Herriko mugimendu feminista bera nola eraldatu dituzten antzemateko premiatik. "Egoeraren analisiak partekatzeko eta batez ere, aurrerantzean, estrategia bateratuak zehazteko" beharretik, mugimendu feministak jardunaldiei buruzko dosierrean zehaztu duenez.

Ez da erronka makala, mugimenduak azpimarratzen duen eran, bizi ditugun garaiek hainbat eremutan —hasi ideologikotik eta instituzionaleraino, sozialetik, ekonomikotik eta politikotik pasata— askotariko aldaketak eragin baitituzte. Kapitalismoa berrantolatzen ari da; politika ekonomiko neoliberalak dira nagusi han eta hemengo agintarien agendetan; bizitzaren merkantilizazioa geroz eta basatiagoa ari da bilakatzen; klase arteko arrakala handitzen ari da etengabe, bazterreko subjektuak are eta gehiago prekarizatuz; borroka sozialaren kriminalizazioa indartuz doan era berean, militarizazioa etengabe ari da areagotzen; beren bizilekutik ospa egitera beharturik ikusten dute beren burua ehunka pertsonak egunero, eta errefuxiatuen krisi deitu zaionari aterabidea emateko prestutasunik ez du agertzen Europar Batasunak; eta honako testuingurua haztegi, aparraldian da faxismoa. Besteak beste.

Guzti horri, Euskal Herriak bizi duen testuinguru politiko berria

gehitu behar zaio, orain hamaika urtekoaren oso bestelakoa. Mugimendu feministak argi utzi du: "Urtetan gure gorputzak eta mugimendua zeharkatu dituen gatazka armatuaren konponbidean" asko duela "esateko, gogoetatzeko eta eragiteko". Eta egoera are gehiago katramilatzen da urteen igaroak mugimendu feminista bera ere eraldatu duela kontuan hartuz gero. Mugimendua ezinbestekoz aldatu baita honen "ikusgarritasuna, legitimitatea eta mobilizatzeko gaitasuna areagotu eta indartu" diren heinean. Alabaina, pertsonala eta politikoa uztartzen trebea den mugimendurik bada, feminista da. Urteetako jarduna ez da debaldekoa, mugimenduak berak aitortu duenez: "Urte luzetako teoria eta praktika feministen oinordekoak gara Euskal Herrian".

BOST ARDATZEN BUELTAN

Bizitzak hankaz gora jartzen dizkigun mundu ordena nola irauli eta bizitzak erdigunean jartzera bidean marratu beharreko estrategiez hausnartzen ez da lan makala izan Durangon, eta egitekoa era antolatu batean burutzeko asmoz, bost ardatzen bueltan egituratu dituzte jardunaldiak: *Bizitzak erdiguneratzeko agenda partekatua eta burujabetzak*; *Dekolonialitatea*; *Gorputzak eta sexualitateak*; *Indarkeriarik gabeko bizitzak eraikitzen*; eta *Mugimendu feministaren erraiei begira*. Bost ardatz, beti ere argi izanik bertan jorratzen diren gaiak, patriarkatuaren zapalkuntza forma anitzak, elkarren artean harilkatuta ulertu behar direla.

Jardunaldien egitarau anitz eta oparoaren baitan, bost ardatzoi mahai-inguru zentral forma eman zaie. Ostiral goizean burutu zen lehena. Beatriz Egizabalek umorez jantzi eta hizkuntza ugaritan egindako harrera ekitaldiaren ostean, *Bizitzak erdiguneratzeko agenda partekatua eta burujabetzak* mahai-inguruan bildu ziren Etxaldeko Emakumeak, Itaia, Bilgune Feminista, Oneka eta Etxekotu Gabeko Emakume Langileak taldeetako kideak.

Aniztasunak bereizten zuen publiko jendetsu eta gogotsuaren aurrean, azken pare bat urteetan martxoaren 8ko grebak aldarrikatutakoa nola egikaritu hausnartzeari ekin zioten: bizitzak erdigunean jartzeko hartu beharreko bidea marratzeari, alegia. Eginkizunak zer suposatzen zuen jakinik mintzatu zen Etxekotu Gabeko Emakume Langileak taldeko Josefina Roco Sanfilippo, "den-dena aldatzera gatoz" adieraziz. Burujabetza feminista ortzi muga, beste jendarte eredu baten eraikuntzan eraldatu beharreko eremuetatik mintzatu ziren, elkarrekin lan egin beharra azpimarratuz eta zenbait helburu xedatuz: pentsio duinak lortzea, etxeko langile egoiliarraren figura abolitzea, elikadura burujabetza kontsolidatzea, klase borroka eraberritzea eta burgesiak langileen gainean duen kontrola murriztea, kasu.

AUTODEFENTSA FEMINISTAREN LEGITIMAZIOA

Indarkeriarik gabekoa behar du izan bizitza erdigunean jartzen duen jendarte antolamenduak, eta hargatik eskaini zitzaion *Indarkeriarik gabeko bizitzak eraikitzen* mahai-ingurua indarkeriei buruzko hausnarketari. Medeak, Bilgune Feminista, Emakume Internazionalistak, Justizia Feminista mintegia eta F.A.R.R.U.K.A.S. taldeek ikuspuntu ezberdinetatik jorratu zuten indarkeria matxista, erpin ugariko hausnarketak plazaratuz.

"Inportantea da indarkeria matxistaren erro guztiak ondo ulertzea, indarkeria matxistarekin amaitzeak indarkeria mota askorekin bukatzea exijitzen baitu", erantzun zuen egun batzuk lehenago Medeak taldeko kide Josebe Iturriozek jorratuko zutenaz galdegitean; mahai-inguruan gaian sakondu zuen, eta adierazi indarkeriaren eginkizuna sistema heteropatriarkala sostengatzea dela, horren aurrean autodefentsa feminista zilegituz. "Indarkeriaren teknika performatiboez" jabetu beharko ginatekela azpimarratu zuen, "inteligentziaz eta elkar zainduz", eta ez indarkeriaren apologia egin. Bere iritzitan, feminismoaren xedea ezin baita izan "gero eta gizarte bortitzagoak edukitzea".

Autodefentsa feminista oinarri duen F.A.R.R.U.K.A.S. taldeak indarkeriari indarkeriaz erantzuteko zilegitasuna mahaigaineratu zuen. Hitza hartu aurretik autodefentsa feministaren aldarrikapen ozen eta argia egiten zuen bideo bat erreproduzitu zuen taldeak, eta honek publikoan sorrarazitako sentipen kolektiboaren eskutik etorri zen mahai-inguruaren une gorena, entzuleen artean emozio eztanda eta txalo zaparrada eraginez. Mahai bueltan autodefentsa feministaren aldeko hautua agertu bazen, entzuleen erreakzioak hautu hori berretsi zuen, baita hautuak ahalduntzera bidean duen potentziala nabarmendu ere.

Autodefentsaz harago ere joan ziren mintzakideak, justizia feministaz jarduteraino. Azken gai horri dagokionez, Justizia Feminista mintegiak azpimarratu zuen ez dela erraza punitibista ez den justizia eredua eraikitzea, "mendekuaren eta zigorraren diskurtsoa oso errotuta dagoelako". Hala ere, guztion artean beste justizia eredu baten eraikuntzari bide eman beharra agertu zuten.

INTERPELAZIOZ JOSITAKO EZTABAIDAK

Hain anitza den mugimenduaren agenda bateratua eratzeko eginkizuna ez da izan egiteko erraza. Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak *Mugimendu feministaren erraiei begira* mahai-inguruan xedatu bezala, kapitalak aniztasuna erosoa den zeozer bezala aurkezten duen arren, aniztasuna kudeatzea zaila da berez. Agenda orotan bezala, mugimendu feministarenean ere etxeko lan batzuk beste batzuk baino mardulago ageri dira, eta eginbehar potoloenak aniztasunari tokia egitearekin dute zerikusia.

Saretzea helburu, antolatzaileek mugimendua bere osotasunean jardunaldien parte sentitzea bilatu dute, egiteko horretan arreta berezia jarriz mugimenduaren erdigunean ez dauden emakumeen kolektiboei. "Haien aportazioak zuzenean jaso eta beren ahotsak erdigunera ekarri eta presente izateko", koordinazio lanetan aritu den Garazi Goienetxea Díezen hitzetan. Bazterretako kolektiboen ahotsek erdigunetik planteatutakoek, ohikoan erdigunea okupatu ohi duen kolektiboko inor gutxi utzi dute epel. Feminismoaren baitan hegemonia diren emakume zuri, jatorriz bertako, heterosexual eta zisgeneroak behin baino gehiagotan interpelatu dituzte marjinetatik, okupatzen duten posizioak ematen dizkien pribilegioak seinalatuz.

Medeak, B.A.L.A., Ozen, Sare Lesbianista eta Elkartean-ek osatutako *Gorputzak eta Sexualitateak* mahai-inguruaren bueltan eman ziren interpelazio horietako zenbait. Itzulingururik barik, bati baino gehiagori arnasa moztuko zion galdera aireratu zuten Sare Lesbianistako kideek: "Izan zaitezke feminista heterosexuala izanik?". Ildo horretan, ahizpatasuna zergatik ez den sexualizatzen hausnartzera gonbidatu zituzten entzuleak.

Heterosexualak bakarrik ez, politizatu gabeko lesbianak ere interpelatu nahi izan dituzte. Bollera gisa aurkeztu ziren hizlarietako hainbat, adieraziz terminoak hautu politiko bati egiten diola erreferentzia, lesbianaren kasuan ez bezala. Argi azaldu zuten B.A.L.A.ko kideek: bollera izatea disidentziatik heteroarauaren kontra borroka egitea dela. Horri lotuta, ertzetan eroso sentitzen direla gaineratu zuten Sare Lesbianistakoek, beren hautu politikoa erradikala izanik erdigunea okupatu eta normatiboak izan nahi ez dutela aditzera emanez.

Mahai-inguru berean, eztabaida eman zen identitate anitzak barne bildu asmoz emakume izendapena izartxoarekin idaztearen gainean. Zenbaitzuen iritziz formula nahasgarria da, eta beste batzuen aburuz baztertzailea da inklusiboa baino gehiago. Publikotik egindako ekarpen baten arabera, aldiz, izartxoak adierazten du mugimendu feminista emakume kategoria konfliktoan jartzen ari dela. Ondoriorik atera ez arren, izartxoaren erabilera problematizatu zen.

DEKOLONIALITATEA, KONTRAKO EZTARRITIK

Dekolonialitatea mahai-inguruan plazaratutako interpelazioak izan ziren, halere, entzuleen barruak gehien nahasi zituztenak. Garaipen, Mujeres del Mundo, Ahizpatasuna, Raízes, Amar eta Emakume Migratu eta Arrazializatuen Euskal Herriko Sarea taldeetako kideek osatutako mahaian jazotakoek agerian utzi zuten mugimendu feministaren "zuritasuna", gehiengo zuri horrek mugimenduan gorpuzten duen hegemonia, eta kokapen horrek ematen dizkien pribilegioak. Mahaiaren bueltan arrazializatutakoa ez zen emakume baten presentzia kuestionatuz abiatu zuen solasa Emakume Migratu eta Arrazializatuen Euskal Herriko Sareko kideak, eta mahai-inguruak iraun zuen bi orduetan hegemonia diren feministen pribilegioak mahai gainean mantendu zituzten.

"3.000 feminista zuriri esango diegu nola beraiek ere izan daitezkeen zapaltzaileak eta arrazistak (...) Inoiz ez da dekolonialitateari buruzko mahairik izan. Historia egiten ari gara", irakur zitekeen Raízes taldeak sare sozialetan publiko egindako ohar batean, hitza hartu baino ordu batzuk aurretik. Ondoezak aurreikus zitezkeen.

Pribilegioak beren gordinean seinalatzeaz harago, arrazializatutako kideek nolako aliantzak nahi zituzten jakinarazi zuten: instrumentalizatutako aliantzarik ez dutela behar eman zuten aditzera, elkarren arteko zubiak eraikitzea baizik. Feministaautoktonoengandik lideratuak edo instrumentalizatuak izateari muzin egiten diotela azpimarratu zuten, eta kuota gisa erabili ditzaten ez dutela onartuko argi utzi.

Interpelaziook sakon astindu zituzten arrazializatu gabeko kideak; barren nahasiek eta norbere pribilegioak behatzeko erresistentziek, eragin zuten gatazkarik. Mahai-inguruaren ostean, publikoak hitza hartzearekin batera, eztabaida piztu zen; gogorrena, baina, hizlariak eszenatokitik jaistean jazo zen: antolakuntzak biharamunean jakitera eman zuenez, zenbaitek eraso egin zien kide arrazializatuei, erasoen aurkako protokoloa martxan jartzea eraginez.

Gertakariek gauza bat ezin argiago utzi zuten: geure zilborrari begiratu eta dauzkagun pribilegioak identifikatu eta lantzeko beharrizana. Bilgune Feministak igandean adierazi bezala, zapalduaren paperarekin identifikatzera oso ohituta baikaude, "baina nola kostatzen zaigun interpelatuak izatea". Mugimendu anitza eta inklusiboa eraikitzera bidean, aurrerakoan serioski lantzeko afera nagusietako bat dekolonialitatearena dela argi geratu zen, autokritikatik asko eskatuko duen eginkizuna.

Jardunaldiak baino egun batzuk lehenago Afaf el Halaoui eta Cony Carranza mahaikideek itzulingururik gabe adierazi zuten afera honetan oraindik asko dagoela egiteko. Carranzak aurkako sentimenduak zituen jardunaldiei zegokienez: ilusioa, gaia jorratuko zelako; eta ardura, iskanbila sortuko zela jakinik. Hala ere, argi zioen: "Beharrezkoa da is-

kanbila sortzea". Pribilegioak lantzearen lan desatsegina goxatu dezakeen gakoa luzatu zuen, ordea: ez dela kulpatik egin beharreko lana, erantzukizun kontua baizik. Jakina baita errua tarteko denean dena bilakatzen dela berez dena baino itsusiago. Mugimendu benetan anitza eratzeko ezberdintasunak onartu beharra azpimarratu zuen El Halaouik, eta libre izatera bidean mendebaldartu beharrik ez izatea aldarrikatu.

AURRERA BEGIRAKOA

Mugimendu feministaren erraiei begira azken mahai-inguru zentralean —baita ostean talde txikietan egindako asanbladetan ere— barrura begirako lana egin zuen mugimenduak, komunean jarritakoen eta emandako eztabaiden ondotik aurrera begirako erronkak identifikatuz, eta hartu beharreko estrategiez hausnartuz.

Amuge, PAF!, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa, Bizkaiko Emakumeen Asanblada (BEA) , Bilgune Feministaldeko kideak bildu zituen mahaiaren gainera ateratako eginbeharrak askotarikoak izan ziren: mugimenduaren barne egitura indartzea, Euskal Herriko agenda feminista propio bat lantzea, Ipar Euskal Herria Hegoaldearekin saretzea, indarkeria matxistaren aurpegi anitzak bistaratzea, militantzia formak berrikustea, hamar urtean behin baino sarriago bildu eta eztabaida nazionalak indartzea ahalbidetuko luketen espazioak sortzea, datorren errepresioari aurre egiteko beharko diren baliabideak nola lortu eztabaidatzea, klase askapenaren aldeko borrokan aliantzak sortzea, eragiteko botere erreala eskuratzea, lidertza kolektiboak sortzea, talde feministak indartu eta berriak sortzea, "hirizentrismoa" apurtzea...

Zerrenda luzetik gai parea nabarmendu dira, dena den. Batetik, feminismoak azken urteetan bizitu duen gorakada tarteko, kapitalismoa egiten ari den beronen asimilazioarekin arduratuta agertu dira mahaikideak: Egin Dezagun Topak antzeman du kapitalismoak neska gazteei "makillatutako" feminismo bat saltzen diela, eta BEAk "feminismo estandarizatuarekin" adi ibili beharra azpimarratu du, eduki iraultzailerik izan gabe erosotasun osoz feminista sentitzea bultzatzen duela iritzirik.

Jardunaldien bezperetan Josebe Iturriozek ardura bera azaldu zuen, adieraziz feminismoaren gorakada interesgarria bezain arriskutsua dela: "Sare sozialetan jendeak artikuluak-eta irakurtzen ditu, eta feminista egiten da. Eta oso ondo dago. Baina ez dituzte ezagutzen mugimenduaren forma politikoak, nola militatzen dugun". Jardunaldiak emakume guzti horiek gerturatzeko saiakera ere izan dira, mugimenduaren baitan ez dauden feministak aktibatzeko asmoz, feminista antolatu eta antolatu gabekoen arteko arrakala hausteko —edo behintzat murrizteko—. Ezin jakin antolatu gabeko zenbat pertsona aktibatzea lortu den azaroaren lehen hiru egunotan, baina aktibazioa eman dela eztabaidaezina da: lehenengo topaketetatik errepikatzen ez zen parte hartzaile kopurua bildu dute bosgarren jardunaldiek, feminismoaz gogoetatzeko gogoz ziren emakume kopuruak tailer eta hitzaldiak kolapsatzeko haina.

Nabarmendu zen beste gaia, espero zitekeenez, aniztasuna izan zen. Dekolonialitateari buruzko mahai-inguruan jasotako interpelazioek nahasitako barrenak, eta arrazializatutako kideek pairatutako erasoak sortutako ondoeza, iganderaino

eraman zituzten herrestan parte hartzaileek; horren adierazle hizlari orok gaia ahotan hartu izana. Lehen egunean, oraindik gatazka bero zela, bazen artega eragiten zuen zalantza bat: dekolonialitatearen eztabaidak azaleratutako tirabirak arrakala eragingo zuten mugimenduan, ala bidea batera egiteko prestutasuna nagusituko zen? Balantzak bide bateratuaren alde egin zuen igandean. Hori bai: antikolonialista, antiarrazista, antipatriarkala eta antikapitalista den feminismo erradikalean berretsiz; eta pribilegioak lantzeko beharraren premia esplizitatuz.

"Geroz eta pluralagoak garen arren, ez gara nahi bezain anitzak. Aztertu behar ditugu pribilegioak, eta inor gonbidatua ordez, parte sentiaraziko duten espazioak eraiki", zioen Feministaldek. Mahaian zen Amugeko Tamara Clavería, eta hark ere hartu zuen gaia ahotan, beste behin hegemonia interpelatuz: "Ijitoek betiereko ikusezinak izaten jarraitzen dugu", eta feminismoan ere hala izan ohi dela eman zuen ulertzera. "Intersekzionalitatea oraindik ametsa da, desio bat", plazaratu zuen bere iritzia EHko Emakume Mundu Martxak. Azken honek, asko etxera interpelazioz beteta joango zirela probestuz, aurrera begirako bidea baldintzatuko duen galdera plazaratu zuen: "Zer egingo dugu deserosotasun horiekin?". Hortxe datza benetan anitza den mugimendu feminista lortzeko gakoa, nahiz eta exijitzen duen barrura begiratu, gauza anitz kuestionatu eta norbera ere zapaltzaile izan daitekeela onartzea. Ez da digestio errazeko platera, jardunaldien lehen egunetik digeritu nahirik gabiltzanak aditzera ematen digunez. Alabaina, Kattalin Miner eta Nagore Iturriozek mahai-inguruotako batean esan bezala, erosotasunean ez dago iraultzarik. Baieztapen horrek nahiko motibazio izan beharko luke deserosotasunetan belarrietaraino sartzeko. Bizitza erdigunean duen mundu berri bat dugu irabazteko.

ITXIERA, NEKEAK ETA HUNKIBERATASUNAK ZIPRIZTINDUA

Motxilak hausnarketarako gaiez betea, egitekoen zerrenda lanketa pertsonal zein kolektibo ugarirekin josita eta nekea nagusi zela heldu zen igande arratsaldea. Hizketagaiak atzean utzita, hortik aurrerakoa jardunaldiei itxiera ematea zen, oraingoan ospakizun formatuan. Hiru egunetan pilatutako nekeak eta ondoezak alde batera, egon asko zegoelako ospatzeko: mugimendu feministako kide Miren Arangurenek esan bezala, "akatsak akats, gatazkak gatazka, beste iraultza saiakera bat" egin izana, hasteko. Hortik aurrera, dudarik gabe, bakoitzak izango zituen ospakizunerako beste hamaika motibo. Feminismoak asko exijitzen badu ere, are gehiago izan ohi delako ematen duena.

Jardunaldien egoitza nagusi izandako Landako atzean utzi eta kaleak blaitu zituen manifestazioak, aldarri feministak barreiatuz Durangon barrena. Emotiboena, baina, Landakora buelta izan zen. Itxiera ekitaldian oholtza gainetik entzundakoek hunkitu gintuzten. Katalunia eta Guatemalako bi kidek hartu zuten hitzak lehenik, Rojavako YPJ Emakumeen Autodefentsa Unitateetako kide batek ostean, eta mugimendu feministako hainbatek azkenik. Hitz eta mezu askotarikoekin, denek ere eman ziguten txalo egin, malkoren bat edo beste askatu, oihukatu... eta hurrengo egunean berriz altxatu eta borrokan jarraitzeko hamaika motibo. Palanka emozional eta indar txute ederra, jardunaldietan xedatutako guztia praktikara eramateko ordua iritsi den honetan. ●

“NAHIKO GENUKE EZKER ABERTZALEAK ALIANTZA ESPARRU BAT GUREKIN ERE IZATEA”

Albert Botran i Pahissa, CUPeko kidea

ZIGOR OLEAGA VICTOR SERRI

Albert Botran i Pahissa CUPeko idazkaritza nazionaleko kidea da eta Espainiako Kongresuko hauteskundeen zerrendan bigarren postuan da. CUPen historian estreinako aldiz eztabaidatu zuten estatuko hauteskundeetara aurkeztu ala ez, apirileko zitaren aurretik. Ezezkoa gailendu zen orduan. Poble Lliure barne korronteak orduan Albano-Dante Fachínen Som Alternativa eta Pirates de Catalunya alderdiekin koalizioan aurkeztea erabaki zuen Front Republicà izenpean, alderdian krisia eraginez. Azaroaren 10eko zitari begira eztabaida egin du CUPek berriz ere, eta oraingoan aurkeztea erabaki dute. Aurkeztearen motiboez eta helburuez, Espainiako Estatuaren zein Herrialde Katalanen egoera politikoaz aritu gara Botranekin.

Lehendabizikoz aurkeztuko da CUP Espainiako Estatuko hauteskundeetara. Zer helbururekin?
Espainiako Kongresuan orain arte ordezkatua egon ez den independentismoari ahotsa eman nahi diogu. Bi alderdi independentista nagusiak PSOErekin aliantza egiten saiatu dira edo egiteko zalantzan izan dira, aurrera egiteko aukera bakarra balitz bezala. Guk uste dugu norabideak aurkakoa izan behar duela. Egunen batean estatuak aitortu gaitzan, ezin diogu boterea ezeren truke eman gobernu bati. Gutxieneko batzuk egon behar dute, guretzat autodeterminazioa eta amnistia dira. Hori onartzen ez dutenei ez genieke babesik eman behar indar independentistek. Ezta burujabetzaren aldekoek ere, Catalunya en Comù-ren espazioa hor kokatuz.

Aurreko deialdian ez aurkeztea erabaki zuen CUPek, orain aldiz bai. Zer aldatu da apiriletik hona?
Ez aurkeztea alde txikiarengatik erabaki zen, CUPek ez du erabateko posizio aldaketa egin egun batetik bestera. Zerk eragin du militantziaren zati batek jarrera aldatzea? Batetik, alderdi independentistek eta burujabetzaren aldekoek Kongresuan bete duten paper lotsagarria ikusi da. Beste faktore bat errepresioaren areagotzea da. Iraileko CDRetako kideen atxiloketekin zazpi preso politiko gehiago ditugu, hor ikusi zen estatuak jauzi kualitatiboa egin zuela [elkarrizketa irailaren 17an egina dago, Gorenak buruzagi independentisten aurkako epaia eman eta hiru egunera]. Egoera hau salatzeko eta bozgorailu bat izateko aukera guztiak aprobetxatu nahi ditugu.

CUPek ez aurkeztea erabaki ostean eta Endavant korrontearen iritziaren aurka, Poble Lliurek bere kabuz Front Republicà osatu zuen beste eragile batzuekin. Zu Poble Lliureko kidea zara. Aurkeztu zineten, baina ordezkaritzarik ez zenuten lortu. Zer balorazio egin duzue ordukoaz?
Apenas dirurik gabe eta komunikabideetan presentziarik gabe ordezkaritza lortzeko atarian geratu zen Front Republicà. Horrek bidea ireki du neurri baten. Bestetik, CUPen barnean krisia sortu zuen: banaketaren arriskuan izan ginen, oso une delikatua. Baina lortu genuen CUPen inguruan berriz ere batzea. Orduko arriskuak gaindituak daude orain maila handi batean.

Barne giroa aldatu da, hortaz?
Une kritiko bat izan zen antolakundean, baina baita harro egotekoa ere aldi berean. Uste dut beste alderdi batzuetan tamaina honetako desadostasuna kanporaketekin edo zatiketekin konponduko zuketela, edo gurean bertan ere bai beste uneren batean. Hemen komunikazio hari

bat mantendu zen uneoro aldeen artean. Horrek ahalbidetu zuen CUP babesten duen antolakundeetako baten eta gainontzeko militantziaren arteko distantzia amildegi gaindiezin ez bilakatzea.

Azken bi urteetan errepublika "efektibo" egin behar dela edo "Espainiako marko mentalarekin apurtu beharra" dagoela hainbatetan errepikatu du CUPek. Ez al da kontraesankorra orain hauteskundeetara aurkeztea?

Zalantzarik gabe kontraesankorra da, aurreko guztietan ez garenean aurkeztu, horretarako motiboak emanez. Baina ez gara dogmatikoak, eta gure eragiteko moduak aztertu behar ditugu erabilgarrienen alde egiteko. Mugimendu independentistaren zati batek CUP eztabaida independentistatik kanpo ikusten zuen. Hauteskunde hauetara aurkezteak ahots horiek isiltzen ditu. Pauso bat eman dugu aurrera eta kanpainan gure posizioa defendatuko dugu.

Horrez gain, 2017ko urritik zenbait ideia ontzen joan gara. Estatuko gainontzeko herriekin eta mugimendu herritarrekin aliantza gehiago sortzeko beharra da horietako bat. Kongresuan ordezkaritza izateak lagundu dezake horretan. 2017ko urrian krisi sakona sortu genion estatuari, baina ez genuen irabaztea lortu. Estatuan elkartasun eta krisi foko gehiago ez sortzea izan zen gabezia garrantzitsuetako bat.

Herri mugimenduekin aliantzak egiteaz gain, Kongresuan bertan zer politika egiteko asmo du CUPek? Salaketa hutsa, proposamenetan oinarritua...

Izan dezakegun ordezkaritza kontutan hartuta, autodeterminazioa eta amnistia onartzen ez dituen inori babesik ez emateko posizioa hutsala da. Baina ideia hori kutsatu nahi dugu gainontzeko indar politiko independentista katalanen artean zein Catalunya en Comù taldean. Hori litzateke CUPen lehen ekarpena. Behin legegintzaldiak aurrera egitean, ez dugu politika normalizatua egingo. Interesgarriagoa iruditzen zaigu askotan Kongresuaren kanpoan egotea, barnean baino.

> **Banaketaren arriskuan izan ginen, oso une delikatua. Baina lortu genuen berriz ere batzea**

Indar katalanekin planteatzen duzuen aliantzak ez du erreala ematen une honetan.

Azken bi urteetan, gu eta gainontzeko alderdi independentisten artean dagoen distantzia inoizko handiena da ziurrenik. Baina ez da etsitzeko garaia, kontrakoa baizik. Gure proposamenak aste honetako mobilizazio eta sentimendu herritarrekin konektatzen du, ofentsibara jo nahi horrekin. Bi alderdi independentista nagusiak, aldiz, estatuarekin hitzarmenak egiteari begira daude, tentsioa baretu indarrik ez dugulako... Horretan ari dira azken bi urteetan. Gu indar txikia gara, baina uste dugu haiek baino pertsona gehiagorekin konektatzen dugula.

Euskal Herriko indar politikoekin ere aliantzak egiten saiatuko zarete?

Guk ezker abertzalearekin harreman zuzena izan dugu historikoki. Ahal den heinean borroka koordinatuak izatea nahi dugu. Baina kontziente gara bi herri ezberdin garela eta hortaz erritmoak, aliantzak edo helburuak ezberdinak izan daitezkeela.

Sortu EH Bilduren barnean dago, eta EH Bilduk ERCrekin du akordioa.

Nahiko genuke ezker abertzaleak aliantza esparru bat gurekin ere izatea. Eta ez dugu hori baztertzen. Uste dugu ezker abertzaleak gauza komun gehiago izaten jarraitzen duela CUPekin ERCrekin baino, nahiz eta beharbada arrazoi taktikoengatik gehiago ari diren bat egiten. Indar sozialista, antikapitalista, internazionalista gara: ezker abertzalearen

kultura politiko beretik interpretatzen dugu mundua.

Helburu kuantitatiborik jarri diozue zuen buruari?
Kanpainan gure ahotsa egotea garaipena da jada. Emaitzei dagokienez, inkesta guztiek ematen digute ordezkaritza. Horrek garrantzia du indar politiko nagusiek bozka erabilgarriaren argudioa erabili ohi dutelako txikiak alboratzeko. Ordezkaritza izatearekin pozik geundeke.

Hauteskundeetatik harago, zer analisi egiten duzue Espainiako Estatuaren egoeraz?
Erreferendumaren ostean indar independentistek atzera egin zuten eta PSOErekin elkar ulertze politika bat saiatu zuten, prozesu adostu baten bila. Argi geratu da hori ezinezkoa dela. Errepresioa mantendu da, PSOEren politika apenas ezberdintzen da PPk garatutakotik. Ez dago elkarrizketarako edo hitzartutako erreferendumerako aukerarik. PSOE gehienez ere erregimenaren aurpegi onbera dela ikusi da, baina erregimena finean. Ondorioa da estatu eta erregimen hau krisira eramanez soilik lor dezakegula autodeterminazio eskubidea onartzea. Uste dut aste honetan guztiok harritu gaituen mugimendu herritarra bide horretatik doala. Tsunamiaren ekimena esaterako, izugarria izan zen.

Estatu eta erregimen hau krisira eramanez soilik lor dezakegu autodeterminazio eskubidea onartzea

2017ko urrian amaitu zen zikloan CUPek jendartean eragiteko gaitasun handia erakutsi zuen, indar minoritarioa izanagatik ere: proposamenak egin eta eztabaidak sortzekoa, ikuskera jakin bat hedatzekoa... Euskal Herritik begiratuta behintzat ematen du gaitasun hori murriztu egin dela. Zein da CUPen osasun egoera?
Azken bi hauteskundeetako emaitzak ez dira onak izan. Abenduaren 21ekoetan hamar legebiltzarkidetik laura pasatu ginen. Udal hauteskundeetan ere emaitza kaskarrak izan ditugu. Horrek ekarri du gure buruei galdetzea ia zergatik ez dugun jendearekin konektatzen, eta prozesu horretan gaude oraindik ere. Espainiako hauteskundeetara aurkezteko erabakia konektatzeko nahi horren barnean kokatu behar dugu. Nik uste dut presentzia irabazteko balio diezagukela. Esan behar da hamar legebiltzarkidetik laurako beherakada hura egoera berezi batean eman zela, eta inkesta guztiek ematen dizkigutela emaitza hobeagoak.

CUPen politikaren oinarria udalgintza izan da historikoki. Udal hauteskundeetako emaitzen inguruko hausnarketa zehatzik egin duzue?
Gure ingurune sozialarekiko deskonexio bat sumatu dugu. Jendeak garai baten aitortu zigun erreminta erabilgarriaren izaera galdu bagenu bezala. Autokritika egitera behartzen gaitu horrek, ezin dugu onartu pisu horren galera. Baina, bestetik, bi urteotan erregimena egonkortu egin da. PSOEk PP ordezkatu zuen, alderdi independentista nagusiek atzera egiten zuten... Ziklo horrek guri eragin digu, baina baita M15etik datorren ezkerrari ere, oso emaitza kaxkarrak izan dituzte. Egonkortze fase horretan gurea bezalako aukera apurtzaile batek zailtasun gehiago dauka. Epaiarekin egoera aldatu dela susmatzen dugu: mobilizazio ziklo berria ireki da, haustura ortzi-mugak indartu dira, eta horrek beharrezko aktore bihurtzen gaitu jende askoren begietara.

Independentismoaren barnean inork ez duela bide orri argirik ematen du aspaldian. CUPek badu bat Herrialde Katalanentzako?
Ez dugu itxitako proposamenik gaur gaurkoz, eta izango bagenu ere ez dakit CUP bezala aurkeztu beharko genukeen. Sukalde lan bat behar da aurretik, indar independentista guztiek, burujabetzaren aldekoak ere akaso, gutxieneko batzuk adostu ditzagun aurrera egiteko. Guk uste dugu autodeterminazio eskubidea lehentasun bezala jarri behar dugula. Independentziaren aldekoak ez ezik autodeterminazio eskubidearen aldekoak batu behar gara. Urriaren 1a eta 3a defendatu zuen bloke hori berrosatu behar dugu estatua kontraesanean jarriz berriz ere. Amnistia gehitu behar dugu orain, egun ditugun 16 preso politikoentzako eta erreferendumari lotuta inputatuak dauden mila lagunentzako. Autodeterminazioa eta amnistia bide orri bat berrosatzeko ardatzak izan daitezke, gehiengo sozial batek egin ditzake bere.

Egoera ez da erraza. Nola uztartu pauso laburra eta begirada estrategikoa?
Erritmo politikoen kudeaketa antolakunde politikoek praktikatzen jakin behar duten artea da: noiz geldotu erritmoa, noiz azkartu... Ez dago independentzia lortzeko formula jasotzen duen eskulibururik. 2017ko urritik zenbait ondorio atera genuen. Egia da Kataluniako jendartean badela sektore bat independentzia irmotasunez eta modu aktiboan errefusatzen duena. Lehentasunetako bat izan behar du sektore hori desaktibatzea. Independentista ez direnen artean ere programa independentistaren atal batzuekiko atxikimendua lortu behar dugu. Horretarako independentismoaren programa soziala garatzea ezinbestekoa da. Ez dugu soilik autodeterminazio eskubidea aldarrikatu behar, oso urrunera eraman gaituen arren; independentzia eta errepublika eskubide sozialak irabazteko nahi dugula ere aldarrikatu behar dugu. Pentsionisten alde, prekarizatuen, emakumeen, naturaren alde... Gehiengo oso sendoa behar dugu.

Desobedientziaz asko hitz egiten da. Zein da ematen diozuen tokia?
Tradizio iraultzaile batetik etorri gabe ere, desobedientzia ez-biolentoarena oso ondo ulertu zuen herritar askok urriaren 1ean. Aldaketa gertatu zen orduan, sakona. Estrategia desobediente ez-biolento masiboaren eraginkortasuna frogatua geratu zen. Berritasuna izaera masiboan zegoen, desobedientzia aspalditik praktikatzen baitute mugimendu herritar askok. Herrialdearen kultura politikoarentzako ekarpena izan zen. Urriaren 15ean berriz ere ikusi genuen El Prateko aireportuan. Parte hartzaileak gazteagoak eta ezkertiarragoak izan baziren ere, aniztasun handia zegoen. ●

DONOSTIAKO METROAREN SEGURTASUN NEURRIAK ERE AUZITAN

DANI BLANCO

Hans Heydemann ingeniari alemaniarrak 80 urte bete berri ditu. Bere hirian, Stuttgart 21 bataiatutako 60 kilometroko lurpeko tunel festa erraldoiaren aurkako borrokan murgilduta daramatza urteak. Suteen aurkako prebentzioa eta larrialdi irteerak ditu espezialitatea. Satorralaia elkarteak ekarri du Donostiara metroaren proiektua medio. Planoetan ikusi dute larrialdi irteera bakarra jarri nahi diotela, eta honek 500 metroko luzera eta 400 eskailera maila dituela. Horrekin, fiskaltzan salaketa jarri dute "segurtasun kolektiboaren kontrako delitua" izan daitekeen ikertzeko eskatuz.

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Lurpeko tuneletan gertatzen diren suteen prebentzioan aditua da Heydemann ingeniaria. Orain bi urte Baionan egin ziren *Proiektu erraldoi eta inposatuen aurkako nazioarteko jardunaldietan* Europa osoko herri mugimenduak bildu ziren. Bertan ezagutu zuten elkar Satorralaiako eta Stuttgart 21en aurkako herritarrek. Donostiarrek iazko abenduan jarritako salaketa administratibo baten ondorioz, lurpeko burdinbideek bete beharreko araudiak ikertzen amaitu dute. "Eusko Jaurlaritzak erantzun zigun Europako legea ez zutela zertan bete, baina AEBetako NFPA 130 zela zorrotzena eta %100ean betetzen zutela", dio Harry Stürmer Satorralaiako kideak. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburu Arantza Tapiak ere idatziz adierazi zuen hori Eusko Legebiltzarrean, EH Bilduren galdera bati erantzunez. Araudi hori zer zen ez zekitenez, Stuttgarteko jendearen bidez Heydemannekin jarri ziren harremanetan. Eta hau, buru-belarri sartu zen gaian.

Ondorioa? "Fiskaltzan salaketa aurkeztu du Satorralaiak Donostiako metroaren inguruan. Aditu batek araudi-urraketa larriak egiaztatu ditu tuneleko segurtasun eta larrialdiko ebakuaziorako baldintzen arloan", adierazi dute urriaren 22an epaitegiaren aurrean egindako prentsaurrekoan. Ingeniari alemaniarrak ikusi du Eusko Jaurlaritzak ez duela betetzen berak dioen NFPA 130 araudia. Hainbat eragile sozialek eta sindikalek ekimenarekin bat egin eta obrak gelditzeko eskatu dute.

> **"Sute kasuan eraikin bateko 23. solairura eskaileretatik igotzen saiatzea bezalakoa da dagoen larrialdi irteera bakarra"**
>
> Hans Heydemann

Austriako Alpeetan, Kaprun hiriko funikularra herrialdearen modernitatearen ikurretako bat zen. Mendian barrena egindako tuneletik glaziar batera heltzen zen. 2000ko azaroaren 11n, ordea, ordura arte sekula gertatu ez zena jazo zen: funikular batean sutea. Tunelean barrena zihoazela, trenaren beheko partean zegoen berogailu batek su hartu zuen eta horren ondorioz guztia erretzen hasi zen. Tunelak tximinia erraldoiaren efektua egiten zuen, oxigenoa xurgatuz beheko aldetik eta kea, beroa eta sua botaz gora. Bagoietatik irtetea lortu eta suhiltzaile izandako pertsona baten gomendioei jaramon egin zieten 12 pertsonak bakarrik salbatu ziren. Hauek tunelean beherantz egin zuten ihes. Gorantz abiatu ziren guztiak hil ziren, keak itota, eta ondoren karbonizatuta. Orotara 155 pertsona hil ziren, Wikipedian arabera, Austriako tragediarik handienean.

"Istripuak asko dira eta suteak ere bai". Erreportaje honekin batera datorren taulan daude lurpeko tuneletan izandako sute nabarmenenak. "Nire kalkuluen arabera, 1.500 hildako eta 5.900 zauritu izan dira munduan gutxienez tuneletan

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

SATORRALAIA Donostiako protesta mugimendu nekaezinetako bat bilakatu da. Irudian, artxiboko argazki bat.

gertatutako suteetan –diosku Heydemann ingeniariak–. Trenak tuneletan daudenean oso arriskutsuak dira, batez ere ke eta bero handia sortzen delako barnean".

Groseko auzo elkartean geratu gara Heydemannekin, Nafarroa Beherea plazan. Bertan egiten dituzte bilerak astelehenero Satorralaiako kideek. Egin duen ikerketaz mintzatu nahi dugu xehetasunez. Metro pasantearen proiektua laburrean adierazteko, gaur egun Hendaiatik datorren Euskotren trena, Easo plaza dagoen Amarako geltokira heltzen da eta hortik zerbitzatzen du Donostiako erdigunea; atzerantz abiatzen da handik Errotaburuko Lugaritzeko geltokira joateko hiru minutuan. Hainbesteko polemika eragin duen proiektu honek –2013an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik "proiektu faraonikoa" zela esanez aurka zegoela adierazi zuena–, Easoko tren geltokia ezabatu eta Donostiako hirian barrena metro gisako azpiegitura berri bat eta Erdialdea-Kontxan geltoki berri bat eraiki nahi du hiru irteerarekin, bata Artzain Onaren katedralaren aurreko Loiola kalean, merkatal gune ugari dauden lekuan; bestea Londres hotelaren atzealdean bidaiariak Kontxa hondartzan atera daitezen, eta hirugarrena San Bartolome muinoan aurreikusitako merkatalgune berriaren sotoan. Ondoren, ezkerrerantz biratuz, badiaren azpitik Antiguara joango litzateke, Benta Berrin geltoki berri batekin, eta handik berriz ere Lugaritzen bat egingo luke egungo Euskotren trenaren bidearekin Añorgan barrena jarraitzeko.

LARRIALDI IRTEERA BAKARRA ETA EZ NOLANAHIKOA

Hans Heydemann pertsonen segurtasunak kezkatzen du gehienbat. Eusko Jaurlaritzako arduradunek adierazi izan dute burdinbideen NFPA 130 araudi estatubatuarra zorrotz beteko dutela. Zer da hau baina? Lurpean eta trenbideetan gertatzen ziren istripuak saiheste aldera AEBek onartutako segurtasun araudi bat. Geltoki eta geltoki arteko distantziak eta aurreikusi dituzten larrialdi irteera kopurua begiratuz, ordea, ingeniariak ondorioztatu du Jaurlaritzak ez duela araudia betetzen. NFPA 130 arauak beste hainbat gauzaren artean dio 762 metroro (2.500 oin, neurri anglosaxoia) larrialdi irteera bat jarri behar dela, eta estandar horren arabera, Kontxa eta Benta Berri artean dagoen 1.895 metroko tartean bi larrialdi irteera izan behar lituzkeela; eta hirugarren bat Benta Berri eta Lugaritz arteko 1.187 metroetan. Guztira hiru, Eusko Trenbide Sareak bakarra aurreikusi duen lekuan.

Horrez gain, dagoen irteera bakarraz haserre mintzo da ingeniari alemaniarrari. Donostia ezagutzen duenak badaki non dagoen Pio Barojako kiroldegia, Antiguako elizaren atzetik maldan gora joanda, Hotel Costa Vascaren ondoan. Hor dago aurreikusia larrialdi irteera. "Egizue kontu metroaren tunela Kontxako badiatik datorrela, urpean 15 metroko sakoneratik. Hortik jarri duten larrialdi irteera, Pio Baroja pasealekuan ateratzen da, 53 metroko garaieran. Horrek esan nahi du, 68 metroko desnibela igo behar dela, %15eko penditza, 'S' formako 500 metroko luzera eta 400 eskailera maila izan asmo dituen larrialdi irteera bakarrean". Sute kasuan eraikin baten 23. solairura eskaileretatik korrika igotzen saiatzea bezala da, bere hitzetan. Imajinatu pertsona heldu bat, haurtxoa besoetan daraman bat, edo gurpildun aulkian doan pertsona bat. "Gazte batentzat erronka izan liteke, baina besteontzat ezinezkoa da".

NFPA 130 araudiak ez du zehazki jartzen zenbateko luzera izan behar duen larrialdi irteera batek, baina ahalik eta laburrena izan behar duela dio Heydemannek; honek 500 metroko luzera du. "Hau ez da normala, erokeria da", dio.

Soluzioa? Batetik, irteera gehiago egitea; bestetik, irteera hau mantendu nahi bada, salbamendurako igogailu bat jartzea. "Horrek ordea gastu gehigarriak dakartza. Ziurrenik ia inoiz edo hamar urtean behin erabiliko den azpiegitura eraiki behar da, hori mantendu egin behar da, noizean behin probatu ongi dabilela, bandalismo arriskua du...".

Eta zergatik egingo ote zuten irteera hori? "Kontutan hartu metro eta halako lanek eraikuntzetan pitzadurak eragiten dituztela. Nire teoria da Kontxaren aurrealdean dauden etxebizitzetan ez zutela eragin nahi, eta muinoaren gaineko eremu hori publikoa denez, hori hobetsi dute".

"Sute edo istripu kasuan, pertsona guztiak ez lirateke gai 500 metroko irteera

Urriaren 1 - 31
Gasteizen Euskaraz kontsumitzeak saria dakar! Zozketa
Bai Euskarari elkartea

Urriak 24
Bertso-saioa
Arabako Bertsozale elkartea

Urriak 29
Gasteiz euskaldundu mahaingurua
IKA, AEK, Udaberria, Hegoalde

Azaroak 6-15
Zabalganan eragin txaramelari
ZET (Zabalgana Euskara Taldea)

Azaroak 11-16
Salburuan keinua kirolari!
Sarburu Kultur Elkartea

Azaroak 18-23
Lakua Arriagan hainbat jarduera euskaraz
Bost Urki auzo elkartea

Azaroak 16-17
Kantari 2019 - Gasteiz
GEU aldizkaria, ALEA, GOIENA

Azaroak 26
Elkarrizketa musikatua. Arabagara

Azaroak 27
Xare, euskarazko kultura digitalaren jardunaldiak
Oihaneder Euskararen Etxea / EJ-GV

Azaroak 28
Mintzodromoa
Bai Euskarari elkartea

Izan zaitez neu kontzertua
Gari, Anari, Jon Basaguren, Libe.
Jimmy Jazz aretoa
Leocadia Zabalate elkartea

Abenduak 3
Irakurraldia ALEA
Haur eta gazte literaturaren itzulpen sarien banaketa
Erakunde adierazpena
Gasteizko Udala

Abdon Glz. de Alaizaren alfabetoa eta Txistu komikia
Arabako Foru Aldundia
Kalejira Oihanederretik Andre Maria Zuriaren plazaraino
Kandelen mosaikoa. GEU elkartea

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

URTEA	HIRIA	HERRIALDEA	ZERGATIA	ZAURITUAK	HILDAKOAK
1972	VIERZY	FRANTZIA	Bidaiarien trenean sutea	111	108
1972	HOKURIKU	JAPONIA	Treneko jatetxean sutea	690	30
1975	LONDRES	INGALATERRA	Metroan Trena errailetik irten zen	73	44
1975	MEXIKO DF	MEXIKO	Trenen arteko talka	30	50
1987	LONDRES	INGALATERRA	Eskailera elektrikoaren azpian sutea	100	31
1990	NEW YORK	AEB	Kableen sutea	200	2
1995	BAKU	AZERBAIJAN	Zirkuitulaburra	265	289
1998	GEIZHOU-GUIYANG	TXINA	Gas deposituaren leherketa	?	80
2000	KAPRUN	AUSTRIA	Olioa berogailu elektrikoan	?	155
2003	DAEGU	KOREA	Atentatu su-eragilea	147	197
2005	LONDRES	INGALATERRA	Atentatua lehergailuekin metroan	700	56
2011	MINSK	BIELORRUSIA	Atentatua lehertailuekin metroan	300	15
2015	WASHINGTON	AEB	Ezezaguna	83	1
2017	SAN PETESBURGO	ERRUSIA	Atentatua lehergailuekin metroan	40	11

LURRAZPIKO TREN ETA METROETAN GERTATUTAKO EZBEHAR LARRIENAK

honetatik ateratzeko, eta batzuek kanpo-laguntza beharko lukete. Horretarako 25 metro koadroko gela isolatuak behar dira, bertan sartu eta erreskatearen zain geratzeko aukera izan dezan jendeak". Heydermannek eskuratu dituen planoetan ez dago halakorik aurreikusita. Tunelean bertan, zerbait gertatuz gero irteteko espaloiak behar dira trenbidearen bi aldeetan. Espaloi hauek 75 zentimetroko zabalera dute ingeniariak dioenez, 80 zentimetrokoa behar luke, adibidez, gurpildun aulkian doan norbait atera ahal izateko, edo haurra eskutik eutsita daraman guraso batentzako. Dena den, hori oso estua dela uste du, hainbat egitasmotan 1,20 metrokoak ere egiten dituztela kontutan hartuz.

HAIZAGAILUAK, AUZOKIDEEN ZARATA ITURRI

"Planoetan ikusi dugunez, soilik sekzio batean markatu dute haizagailua jartzea, eta bigarren bat beharrezkoa da korrontea sortzeko. Pareta bat ere beharrezkoa da, haizagailu bakarra jarriz gero, airearen zirkuitu-laburra eragingo bailuke eta ez litzateke gai tuneleko kea kanporatzeko. Horrez gain isilgailuak ere behar dituzte eta ez dut inon hauei buruzko erreferentziarik aurkitu, haizagailuak lau astean behin martxan jarri beharko baitituzte ikusteko ongi dabiltzala eta sute kasuan ez dutela hutsik egingo. Baina kontua da, haizagailu hauek izugarrizko zarata ateratzen dutela, eta kalkulu logaritmikoen arabera bizilagunentzat hegazkin batek aireratzean egiten duen zarataren antzekoa izango da, 118 DB gutxi gora behera". Heydemannek dio ez duela hemengo araudia ezagutzen, baina Alemanian 50 DB baino gehiago ezin dela eragin jendea bizi den lekuetan.

"Desastre bat iruditu zait guztia. Ez dituzte NFPA 130 araudiaren exijentziak betetzen eta proiektua ezin da horrela egin. Plano berriak bota behar lituzkete, eta horretarako denbora gehiago behar da", borobildu du ingeniari beteranoak.

Satorralaiak egindako salaketaren albistearen berri ematean, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak, amaieran Eusko Trenbide Sarearen posizioa jaso zuen. Inongo xehetasunik eman gabe, bertan zioten ez zegoela inongo irregulartasunik eta prest daudela behar den tokian azalpenak emateko. Beren webgunean egiten dituzten komunikazioen atalean ez da inolako azalpenik ageri.

"Donostiak duen tamainarako, obra hau erraldoia eta oso garestia da. Ofizialki 180 milioi euro kostako dela diote agintariek, baina esperientziaz diot askoz gehiago izango dela. Autobus eta tren zerbitzuekin nahikoa dauka hiri honek batetik bestera joateko. Nik ez dut uste interes orokorrari erantzuten dionik metroak, eraikuntza enpresen interesak ikusten ditut atzean. Ez du zentzurik horrelako proiektu bat sustatzeak", dio.

Satorralaiak fiskaltzari eskatu dio ikertzeko. "Fiskaltzak zentzu objektiboa balu salaketa onartu behar luke eta ikertu, baina tira, beldur naiz daukan eragin politikoagatik ez duela onartuko. Epaileek eta fiskalek gora egin nahi dute, Alemanian gauza bera gertatzen da, salaketa gehienak ez dituzte onartzen, beren karrera baitute buruan". Metro pasantearen aurka borrokan ari diren herritarrei zer esango liekeen galdetuta ondorengoa dio: "Ez etsi, beharrezkoa da herritarrek erresistentzia jartzea inposatutako proiektuei: ez baduzu ezer egiten, ez duzu ezer ere jasoko". ●

BERRI TXARRAKEN

AZKEN KONTZERTURA GONBIDATZEN ZAITUGU!

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO ATERA ARGAZKI BAT GAZTEZULO 211. ZENBAKIAREKIN ETA AUKERATU:

1. AUKERA	IGO SARE SOZIALETARA #GAZTEZULOBTX TRAOLA ERABILIZ ETA GAZTEZULO ETIKETATUZ
2. AUKERA	BIDALI 640 12 23 82 WHATSAPP ZENBAKIRA

EIDER ITURRIAGA IZARBE PHOTO

SOCORRO CAUICH

«Bileran maiaz hitz egin nuen lehen aldian, kideekin konektatu nuela sentitu nuen»

Socorro Cauich maia komunitateko kidea da. Mexikoko Yukatan estatuan bizi da. Berak dio maia hizkuntzaren atzetik ibili gabe, egoerek eta pertsonek eraman dutela hizkuntzara. Erronkei aurre egitea gustatzen zaio. Maia ikastea izan zen bere lehen erronka. Irakaslea eta irrati esataria da. Garabide elkarteak gonbidatuta hilabete igaro du Euskal Herrian.

ONINTZA IRURETA AZKUNE DANI BLANCO

Gurasoek ez zizuten maia irakatsi. Geroago zeureganatu zenuen hizkuntza.
Maia ez da nire ama hizkuntza. Gaztelania hitz egiten hasi nintzen, hain zuzen nire gurasoek ikusi zutelako zein arazo izan zuten nire anai-arrebek eskolara hasi zirenean. Zortzi anai-arreba ditut, nagusiagoak guztiak, eta denek hitz egiten dute maia. Ama hizkuntza dute. Eskolan irakasle guztiek gaztelaniaz egiten zuten, eta gurasoek, itxuraz, haurrek irakasleari ulertzeko arazoa sentitu zuten. Horregatik, gurasoek niri espainieraz egitea erabaki zuten.

Ikastetxean espainiera baino ez zen egiten?
Hala da. Maia hiztunek eskolara iritsi eta derrigor ikasi behar izan zuten espainiera. Ezin zioten irakasleari ulertu.

Beraz, etxean maia egiten ez zuen bakarra zu zinen. Zergatik erabaki zenuen ikastea?
Amak mandatuak egitera bidali ohi ninduen izebarengana, baina hark maia baino ez zuen hitz egiten. Nire lehengusuak itzulpen lanak egiten zizkidan. Egun batez, izebarengana bidali ninduen amak, hara iritsi, eta ez nuen lehengusua ikusi. Izebari galdetu nion: "Non dago nire lehengusua?". Espainieraz galdetu nion. Pentsatzen dut esan zidala ez zegoela, eskuen mugimendua irakurri nuen. Ez nekien zer egin eta hizketan hasi nintzen: "Amak esan dit emateko halako". Pentsatzen dut erantzuna izango zela ez zidala ulertzen, zeren nik berari ez nion ulertzen. Eta orduan: Orain zer egingo dut? Ernegatu nintzen, ezin genuen elkar ulertu. Etxera itzuli eta amari esan nion uste nuela lehengusua ez zegoela etxean, ez nuelako ikusi, eta izebak ez zidala ulertzen. Amak: "Esaiozu halako nahi duzula". Maiaz esan zidan hitza. Joan nintzen izebarengana eta: "Amak agindu dit zuri eskatzeko halako". Berak: "A, bai!". Eta jatordurako gozagarriren bat eman zidan.

Zenbat urte zenituen orduan?
5 urte-edo izango nituen. Egoera horrek eragin zidan maia ikasteko gogoa. Ikasteko beharra sentitu nuen. Beste nonbait gauza bera gertatuko balitzait zer egin behar nuen? Ordutik aurrera belarriak zorroztu nituen. Zerbait ulertzen hasi nintzen. Ulertzen ez nuena galdetu egiten nuen. Gaur egun ere, anai-arrebek hori dute gogoan, beti galdezka ibili naizela.

Haientzat zure egoera arraroa izango zen. Ez zenekien senideen jatorrizko hizkuntza.
Horretaz baliatzen ziren. Nik ez ulertzeko beraien artean maiaz egiten zuten. Gaur egun guraso batzuk gauza bera egiten ari dira. Jakina, ez irakastearen arrazoi bakarra ez da hori, diskriminazioa bizi dugu.

Gurasoek zer pentsatu zuten zu maia ikasteko irrikaz zinela konturatuta?
Normala iruditu zitzaien, baina haiek uste zuten jakin-minez egiten nuela. Bestela ere halakoxea nintzen, ume kuxkuxeroa.

Noiz ohartu ziren ume kuxkuxeroaren kontua baino gehiago zela?
Komunitateetara bisitak egiten lanean hasi nintzenean, 18 bat urte nituela. Gurasoei esaten nien agian maia baino hitz egiten ez duten jendearengana joan beharko nuela. Zer egingo dut? Gose edo

TRANSMISIO ETENA
BEDERATZI ANAIA-ARREBA DIRA SOCORRREN FAMILIAN. BERA DA GAZTEENA ETA ETXETIK MAIA HIZKUNTZA JASO EZ DUEN BAKARRA.

egarri banaiz, beharren bat badut, ezingo dugu elkar ulertu.

10-15 urte bitartean emandako pausoei esker gehiena ulertzera iritsi nintzen. Esaldi solteak botatzen nituen eta barre egiten zidaten. Etxean denek maiaz hitz egiten zuten eta nirekin denek espainieraz. Senideentzat arraroa zen ni maiaz entzutea, barregarria zen.

Gobernuaren erakunde batentzat lanean hasi eta hizkuntzarekin egin zenuen topo. Kontatu zer gertatu zitzaizun maiaz baino hitz egiten ez zuten komunitate hartara ailegatu zinenean.

Egitasmo zehatzak gauzatzen ahalegintzen ginen; izan daiteke eskola gosaria antolatzea edo biltegia osatzea komunitatean. Nirea baino askoz komunitate txikiagoetara bidaltzen ninduten. Hasieran, itxuraz behintzat, dena ondo zihoan, ia denek maia hitz egiten zuten komunitatera bidali ninduten arte. Han ezagun bat nuen eta esan nion halako gairi buruz hitz egingo genuela bileran. Haren galdera: "Baina nola hitz egingo duzu espainieraz ala maiaz?". Harrituta gelditu nintzen eta esan nion: "Espainieraz". Haren erantzuna: "Ez du merezi bilera egiteak, zeren gehienek maia hitz egiten dute".

Ez ziren espainiera ulertzeko gai?

Pixka bat ulertzen zuten. Momentu horretan nire buruari esan nion: "Erronka da niretzat".

Hutsune bat zenuela sentitu zenuen? Sarri alderantzizkoa gertatzen da, uste izatea besteek ikasi behar dutela hizkuntza, espainiera kasu honetan.

Ez, inondik ere ez. Sentimendu kontrajarriak izan nituen. Batetik, kezkatuta nengoen ez nekielako nola moldatu. Bestetik, ez nintzen gaizki sentitu ez zekitelako espainiera. Haien komunitatera banoa eta beraien hizkuntza hitz egiten badute, zergatik inposatu behar dut nire hizkuntza? Ezagun hari esan nion maiaz hitz egingo nuela, baina ez egiteko barrerik. Ez nuen egunerokoan erabiltzen eta ez nuen menperatzen. Esku artean erronka nuela sentitu nuen eta pentsatu nuen egingo nuela, bikain ez seguruenik, baina egin nezakeen.

Nire ezagun hark komunitateko kideei esan zien maiaz egingo nuela eta bilera hasi nuen. Bai, trabatzen nintzen batzuetan, hitzak-eta aurkitzerakoan, baina egun hartan sentitu nuen maia hizkuntza nire egin nuela. Konturatu nintzen egin nezakeela eta maiaz hitz egitea naturala egingo zitzaidala, baita beraiek ni entzutea ere.

Zer ikasi zenuen egun hartan?

Handik aurrera beste komunitateetara joan nintzenean bilera zein hizkuntzatan egitea nahi zuten galdetzen nien. Lehen aldi hartan herritarrekin konektatu nuela sentitu nuen. Mailak ikusten dituzte, haiek hemen behean daude [besoa jaitsi du], eta hara hitz egitera doana, ni, hemen goian nago [besoa gora darama]. Beste hizkuntza bat hitz egiten dugu, eta gainera, gobernuaren ordezkari gara. Haiek baino garrantzitsuagoak garela uste dute. Bilera maiaz egiten badut, maila berean egongo bagina bezala da. Hizkuntzari esker, ulertzen dute ez noala gauzak inposatzera, baizik eta erabakiak adostasunez hartzera. Hizkuntzak asko laguntzen du helburu beraren desioa elkarbanatzen: konbentzitu nauzu, nire hizkuntzan hitz egin didazu, zurekin identifikatuta sentitzen naiz.

> **"Beste komunitate batera baldin banoa eta haien hizkuntza egiten badute, zergatik inposatu behar dut nire hizkuntza?"**

Eskertzen zizuten maiaz aritzea?

Bai, jakina. Haien erreakzioa zen: Gobernuaren langilea da, maila handikoa, eta nire parean ari da jartzen! Nik ez dut horrela bizi, ez naiz haiek baino gehiago, baina haiek horrela bizi dute. Gobernutik zatoz, ia jainkoa zara. Oso eskertuak dira eta esan egiten dizute. Komunitate batean hala esan zidaten: "Zeinen ondo, maiaz egiten duzu! Beste batzuk etorri dira, espainieraz egin dute, eta ez diegu ezer ulertu!". Haiek bezalakoa zarela eta haiekin zaudela sentitzen dute.

Yuuyum irratian ari zara lanean 2015az geroztik. %80 maiaz emititzen duzue, eta %20 espainieraz. Zertarako sortu zenuten?

Aurrez bazen irrati komunitarioa, baina gobernuak diru-laguntzak kendu eta itxi egin behar izan zuten. Haren tokia hartzea zen hasierako asmoa eta helburu nagusia, besterik gabe, maiaz informatzea. Helburuak aldatu dira, ordea. Maia galtzen ari garela antzeman dugu eta maiaz informatzeaz gain bestelako xedeak ditugu, hala nola, hizkuntza irratiz irakastea eta prestigiatzea. Oso ohikoa da esatea ezertarako ez duela balio, zatarra dela. Hirian entzuten bazaituzte erraz esango dizute pobrea zarela, ezjakina edo indiarra. Maia hiztunek hori dena barneratu dute maila ekonomiko goragoko pertsonek ematen dieten tratuagatik. Hala ere, ezin ditut halako maila ekonomikoa duten denak satanizatu. Horrelako ikasleen ikastetxe pribatu batean ematen ditut eskolak eta batzuek pertsonak asko baloratzen dituzte.

Zer esaten dute gai honi buruz?

Azterketaren batean beti galdetzen diet: Zergatik uzten dio jendeak bere hizkuntza hitz egiteari?. Batzuk besteen tokian jarri dira eta idatzi dute: Guk diskriminatzen ditugu.

Haiek diskriminatu eta maia-gurasoek hizkuntza transmititzeari utzi.

Zertarako irakatsi, ezta? Umea diskriminatuko dute, gaizki tratatuko dute, ateak itxiko dizkiote. Agian, nire gurasoek ere, gauza horiengatik ez zidaten irakatsi maia. Nik ulertu nuen eskolan ez moldatzeko beldurra zutela nire gurasoek, baina ez dakit horren atzean askoz gehiago baldin bazegoen. ●

BABESLETZA:

Klaseak Brontze Aroan

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Lech ibaiaren harana (egungo Alemania), duela 4.000 urte inguru. Zazpi bat mendez, giza komunitate bat bizi izan zen egungo Augsburg hiritik gertu. Berriki, aztarnategi horretan ehortzitako arrastoak aztertu ditu Heidelberg Zientzia Akademiako, Ludwig-Maximilians unibertsitateko eta Max Planck Institutuko ikerlari talde zabal batek, eta emaitzak *Science* aldizkarian argitaratu. Brontze Aroko komunitateetan desparekotasun sozial eta ekonomikoa zegoela ondorioztatu dute.

Batetik, gorpuekin batera ehortzitako objektuak aztertu dituzte. Objektu preziatuez inguratuta ehortzitakoak aberatsak ziren, "aristokratak", nekazal gizarte gazte hartako lurjabeak, eta ondasun materialik gabe ehortzitakoak, berriz, haiekin batera bizi ziren zerbitzariak, zenbaitetan esklaboak. Alemaniako aztarnategian haurrak ere aurkitu dituzte hileta arreo oparoekin ehortzita. Horrek esan nahi du gizarte horretan haurrak ez zirela berdin jaiotzen, ordurako boterea eta estatusa oinordekotzan pasatzen zirela.

104 indibiduoren genomaren datuak ere aztertu dituzte, eta nekazal komunitate horretan familia egitura konplexuak eta ahaidetasunean oinarritutako hierarkia zituztela identifikatzen lagundu du horrek. Aurrez, Neolitoa amaitu baino lehen, komunitateak ez zeuden modu horretan antolatuta, edo horren frogarik ez dute oraindik aurkitu behintzat.

ABK SÜD

EMAKUME HONEN HILETA ARREOA ETA HORTZETAKO ESMALTEA AZTERTUTA ONDORIOZTATU DUTE MAILA SOZIAL ETA EKONOMIKO ALTUKOA ZELA ETA EZ ZELA EHORTZITAKO TOKIAN JAIO.

Bestalde, hortzetako esmaltea aztertuta ikusi dute han ehortzitako emakume helduen hortz-haginetan ez daudela Lech haraneko urak dituen osagai kimiko berak. Hau da, emakume haiek ez ziren lurralde horretan jaio, eta bertan jaiotakoen arrastorik ez dute topatu. Horrek esan nahi du emakumeak jaiolekutik beste herrixka batzuetara joaten zirela ezkontzera. Horietako batzuk urrundik etortzen ziren, gainera; Lecheko aztarnategiko emakume baten hortzek diotenez, Alpeez bestaldean, Italiako penintsulan jaio zen.

Baina exogamiarako joera hori ez zen berria, aspalditik zetorren. 2010eko ikerlan batean, El Sidrón (Asturias, Espainia) kobazuloko 12 Neandertalen DNA aztertu zuten eta ondorioztatu zuten ordurako emakumeak giza talde batetik bestera mugitzen zirela ugaltzeko eta, hala, espeziearen aniztasun genetikoa bermatzeko.

Ez omen da egia pobreak eta aberatsak beti egon direla. Giza talde ehiztari biltzaileak parekoagoak omen ziren. Nekazaritzak, sedentarismoak, ondasunak pilatzeak eragin zuen oraindik indarrean dagoen desberdinkeria. Eta Lech bailarako 104 gizon-emakumeak horren froga dira. ●

Eta klaseak nortasun agirian

Lehenago pertsonak identifikatzeko hainbat dokumentu erabili zituzten arren, Espainiako nortasun agiri ofiziala 1951n hasi ziren banatzen; lehenengo zenbakia Francisco Francori berari "egokitu" zitzaion eta 10 zenbakidun NAN Juan Carlos Borboikoak dauka oraindik. Bi agiri horien eskuinaldean, armarri frankistaren azpian, "1a" jartzen zuen, baina gehienetan 2, 3 edo 4 zenbakiak betetzen zuen tarte hori. Izan ere, Frankismoko nortasun agiriek herritarrak kategoria ekonomikotan banatzen zituzten. Lehen mailako herritarrek, aberatsenek, 25 pezeta ordaintzen zituzten agiriaren truke. Bigarren mailakoek –argazkiko agiriaren jabeak, besteak beste)–10 pezeta ordaindu behar zituzten, eta hirugarren mailakoek, aldiz, 5. Pobreenek ez zuten ordaindu behar 4 zenbakidun paper zati baztertzailea eskuratzeko. ●

HAZIEN BIDAIA

Fruituetan bidaiatzen hasten da jaio gabe dagoen landarea; bere bizitzako bidaia izango da, bakarra.

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Uda joan eta negua etortzen den egunean idazten dut hau, San Simon eta San Juda egunean, urriaren 28an. Gauaren iluna egunaren argia baino hiru ordu luzeagoa da gaur. Guk ordularia behar dugu, baina landareek, katxarreria handirik gabe, badute neurri horien berri. Badakite.

Badakite eta prestatu egiten dira. Erreserbak gizenduko dituzte, hostoak botako dituzte, edo eutsi behar badiote azala zaildu egingo dute, fruituak umatu eta purikatze bidean jarriko dituzte. Fruitu horietan bidaiatzen hasten da jaio gabe dagoen landarea; bere bizitzako bidaia izango da, bakarra. Haziek batera edo bestera egingo dute haizearen narran, edo animaliaren baten mokoan edo urdailean, edo pirrilaka amiltzen dira pendizean behera. Gure mandioetan amaitzen da landare askoren bidaia. Gure negua gozatzeko fruitu eta hazi.

Fruitu eta hazi ugari jasotzen da bazterretan: babarruna (*Phaseolus vulgaris*), txitxirioa (*Cicer arietinum*), artoa (*Zea mays*), laboreak, kuia (*Cucurbita spp.*), piperra (*Capsicum annuum*), hurra (*Corylus avellana*), intxaurra (*Juglans regia*), gaztaina (*Castanea sativa*), irasagarra (*Cydonia oblonga*), mizpira (*Mespilus germanica*), sagarra (*Malus domestica*) eta abar. Sagarra jateko jaso daiteke, edo edateko. Negurako eta urte guztirako edaria izango dena barrikote, barrika, bukoi edo upelean irakiten ari da, dagoeneko. Urte berri on! Beste urtebeterako edaria sortu da. Toki askotan bi urtekoa ere egingo zuten; izan ere, aurten sagarrondoak pupulukaturik izan ditugu toki gehienetan. Sagar ugari ibili da bideetan bezala bide bazterretan, bidaian. Hazien bidaian.

Hazien bidaia bitxia da sagardo sagarretan. Sagarrak jo eta sortutako patsa lehengai ederra da azienda bazkatzeko. Baita ongarri gisa ere, lurra bazkatzeko. Bi eratara hazi mordoa doa batera, eta aziendaren simaurra lurreratzen den tokian edo ongarriketa egiten den lurrean sagarrondo muin pila sortuko da, txirpi sarria osatuz. Urte berrian landaretza ekarriko duen ereintza.

Ereintza kontuzko ekintza da, eta zalantza ugari sorrarazten du. Haziak nola jaso, haziak noiz erein, haziak nola hedatu, haziak nola kokatu lurrean... Duela gutxi galdetu dit entzule batek irratian intxaurra ereitean punta gorantz jarri behar ote den. Erantzuna erraza da: imitatu dezagun naturan gertatzen dena. Utzi intxaur alea erortzen, intxaurrondotik eroriko balitz bezala eta nola geratuko da lurrean? Gehienetan etzanda, punta ez, baizik eta bizkarra gorantz duela. Bada, horrelaxe erein.

Erein, ereiten duenak jango eta edango du. Hurrengo urtea bitarteko gure bidaia haziek elikatzen dute. Hazi bete mandio dugun honetan, urte berri on! ●

AZAROAREN 23AN DUZUNARITZEN EGUN-PASA

EHUN URTEKO PAISAIAN 111 PAUSO



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

ARGIA aldizkariaren mendeurrena ospatzeko egunpasa eder bat antolatu dute EHKOlektiboak, Biharko Lurraren Elkarteak eta ARGIAk elkarlanean: azaroaren 23an Duzunaritzera goaz, Jon Harloucheten Idiartia etxaldera. EHKOlektiboak hiru hilero egin ohi duen *Baserriko Uzta* ekimenaren baitako ekitaldia ere izango da egun-pasa hau.

JAKOBA ERREKONDOREKIN IBILALDIA ETA JON HARLOUCHETEN ETXALDEAN BAZKARIA

10:30ean Idiartia etxaldean jarri dute hitzordua, eta aurkezpenak egin ostean, 11:00etan ibilaldia aterako da bertatik: bidean ikusiko dugun paisaiaren inguruko azalpenak emanen ditu Jakoba Errekondok. 12:30ean Idiartiara itzuli eta aperitifaren ondoren etxaldea eta bertan egiten duten jarduera ezagutzeko bisita eginen dute Jon Harlouchet laborariaren eskutik. 14:00etan bazkaria izanen da: salda edo krema, espeziadun behi sukalkia polenta kremarekin eta etxeko jogurtak.

BAZKALOSTEA ITXARO BORDA, SUSTRAI COLINA, PANTXIKA MAITIA ETA IBON RG-REN ESKUTIK

Jakoba Errekondoren *111* izeneko liburua argitaratzear da ARGIA, eta liburuaren aurkezpena Idiartia etxaldean egingo dute, bazkalostean. Errekondok ARGIAn idatzitako 1.111 artikuluetatik hautatutako 111 artikuluen bilduma da liburu hau. Baina badu berezitasun bat: Euskal Herriko hainbat alorretako 22 pertsonak irakurri eta hautatu dituztela Errekondoren artikuluak. Hautaketa horretan parte hartu duten Itxaro Borda, Sustrai Colina eta Pantxika Maitiak solasaldi berezia egingo dute bazkalostean liburua aurkezteko, 16:00etan. Jarraian, "Buztinezko Etorkizuna" testua irakurriko du Itxaro Bordak, Ibon RGren musikaren laguntzaz eta Sustrai Colinak bertsoz iruzkinduta.

ARTO GORRIAK ELKARTEAREN LANA EZAGUTZEKO AUKERA

Arto Gorriak elkarteko kide da Idiartiako Jon Harlouchet. Euskal Herrian oso garrantzitsua izan den arto barietatearen babesa eta zabaltzea bultzatzeko sortu zuten taldea Ipar Euskal Herrian. Nekazaritza intentsiboaren eredua nagusitzearekin batera, AEBetatik iritsitako beste arto barietate hibridoak hasi ziren zabaltzen gurean ere, eta bertako arto gorria galzorian egon zen.

90eko hamarkadan nekazari batek Hego Euskal Herriko komentu batean arto barietate zaharraren haziak bilatu eta handik hasi zen berriz ere gurean zabaltzen.

EMAN IZENA EGUN-PASA BIRIBILERAKO

Egun osoko egitarauaren prezioa, bazkaria barne, 20 euro da. Aurrez eman behar da izena. Horretarako deitu 616 79 62 84 telefonora edo idatzi argiak100urte@argia.eus helbidera. ●

TOKIKOA ETA EKOLOGIKOA KONTSUMITU. ZIURTASUNA KONTSUMITU.

- ✓ Sasoian sasoikoa ekoizten da.
- ✓ Ez du transgenikorik onartzen.
- ✓ Ongarri naturalak erabili eta herbizida eta pestizida sintetikoak sahiesten ditu.
- ✓ Abereen ongizatea ziurtatzen du.
- ✓ Biodibestsitateari eusten dio.
- ✓ Elikadura-balio handiagoa du.
- ✓ Tokikoa defendatzen du.
- ✓✓ Berme bikoitza dauka.

ENEEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
FEADER

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

2017ko martxoaren 19a

KOLDO IZAGIRRE

Ezein legeditan idatzi ez den lege hori.
Ezein legeditan idatzi ez den arren
idatzitako lege guztiek baino
indar bortitzagoa duen lege hori.
Jainkoak emana izan behar duen
lege hori.
Ezpainak lore izatea nahi lukeen
lege hori.
Loreak mutu bihurtzen dituen lege
hori.
Naturak berak eskertzen duen lege
hori.
Betazaletan ere agintzen duen lege
hori.
Geure buruaz lotsarazten gaituen
lege hori.
Errudun egiten gaituen lege hori.
Zokorik ilunenean
arnasa hartzen duen lege hori.
Hitzak garbi bizi diren hartara
eragozten digun lege hori.
Ezer irakurri ezinik gauzkan lege
hori.
Inoiz, inola, inon
debekatuko ez duten lege hori.
Beste lege hori.
Esku zikin horiek.
Auzi joko ez diegun esku horiek.
Ahoa tapatzen eta tapatuko duten
esku anonimo horiek denak.
Joseba Larratxeren irudi ederrak
dioskun hori guztia. ●

ARGIAK 100 URTE

1995EAN ABIATU ZEN LANDAREEN ATALA

Mende laurden astero landareei leku eginez

ETXEZULOAN

Gerezi sasoi aparta

Udaberrian egun argia luzatzen joan da eta urteko egunik luzeenetan gaude (hamabost argi-ordu baino gehiago). Honen ondorioz landareentzako garrantzitsuenak diren bi baldintza ekologikoak puri-purian daude: tenperatura piskanaka gora doa eta lurrean eta airean hezetasun ugari dago.

Beraz gereziondoak (Prunus cerasifera) udabe-

zuri bikaina izan eta bi hilabetetan zehar barruan hazia daraman fruitua hazi ondoren dagoenerako heltzen edo umatzen ari da.

Ekainaren amaia eta

MIREN OSA GALDONA

1995eko uztailaren 9an argitaratu zuen Jakoba Errekondok landareei buruzko ARGIAko bere lehen artikulua. *Gerezi sasoi aparta* zuen izenburu. 1.112 artikulu idatzi ditu ordutik.

Pello Zubiriak "xaxatu" zuen ARGIAn landareez idazteko: "Nola edo hala idatziko duzu zerbait landareei buruz", esan ziola du gogoan. Ordu hartan jada Euskadi Irratiko *Landaberri* saioan ziharduen, egun larunbatero goizeko 9:30ean duen txokoan. Idatzizkora jauzi egitea "kosta" egin zitzaion, ez baita gauza bera ahoz komunikatzea edo ARGIA bezalako hedabide batean idaztea. Hori gutxi ez-eta, hizkuntzaren zuzentasuna eta publiko xedearen beharrak identifikatzen ere saiatu zen hastapenetan. "Gure herrian gauza bera izendatzeko hamabost izen ditugu, eta hori kontuan izan behar dut. Dugun aniztasuna jendeari gustatu egiten zaiola esango nuke". Horrez gain, izen zientifikoak ere geroz eta herritar gehiagoren ahotan daudela dio, eta zuzenean horietaz galdetuz hurbiltzen zaizkiola maiz. "Lehen jendeak gauza jakin batzuek zekizkien soilik, etxean, esaterako, 20 landare erabiltzen ziren; 200 landare baino gehiago erabiltzen ditugu egun, eta jakin-mina bestelakoa da". Jendearen beharretara egokitu da Errekondo. Haien galdera eta iruzkinetatik etengabeko irakaskuntza prozesua abiatu du bere baitan: "Jakitun naiz zer-nolako ardura dudan irakurleen ezagutzan; jendeak irakurri bakarrik ez, askotan bi edo hiru aldiz irakurtzen ditu artikuluak".

2015ean baratzeari buruzko liburuxka bat egiteko eskatu zion ARGIAk Errekondori, gizartean sumatzen baitzen baratzea estimua irabazten ari zela: "Elikadura burujabetza" herritarron kontzientzietan indartu zen eta gero eta jende gehiagok baratzeari ekin zion. Liburuxka beharrean, entziklopediatik gehiago duen *Bizi Baratzea* liburua egin zuen Errekondok eta izan zuen arrakastak erakutsi zuen bazela eremu oso bat edukien bidez jorratzeko. Horrela jarri zuen martxan ARGIAk Bizi Baratzea proiektua, Jakoba Errekondo ere bertako kide dena. Proiektu horren uzta dira *Altza Porru* komiki liburua, *Landareak Lantzen* agenda liburua (2018, 2019 eta 2020koak atera dira) edo bizibaratzea.eus webgunea eta buletina. Lurrari lotutako eragileekin hainbat lan ere egin ditu Bizi Baratzeak: argitalpen bereziak, hitzaldiak, formakuntza saioak...

111 liburua kaleratu berri du ARGIAren Bizi Baratzea proiektuak. Errekondok astekarian idatzitako artikulu hautatuen bilduma da (Itsaso Zubiriak azaldu dizkigu bere barrenak ondoko orrian). Gorka Arresek, *111* liburuaren editoreak esana da inoiz ez dela hainbeste idatzi euskaraz landareez, ez hain modu jantzian eta goi-mailakoan. Hitzoi ondorengoa gaineratu die Errekondok: "Hori ARGIAri zor diogu, ez baitu beste inork halako ezer egin. Hori oso garrantzitsua da, lotura baitu bertako kulturarekin, hizkuntzarekin, garenarekin". ●

111 LIBURUA PLAZARATU BERRI DU ARGIAK

111 plazer txiki

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Kontaktua asko gustatzen zait. Usaindu ahal izatea, bi eskuekin laztantzea. Edozein tarte eta leku da ona; etxea, hondartza, komuna, garraio publikoa... Harremanak geroz eta birtualagoak ditu jendeak, baina nik oraindik ere nahiago dut hezur-haragia. Plazer fisikoa. Liburu bat eskuetan hartu eta leku lasai batean irakurtzearen plazera.

Badauzkat liburu franko egongelako apaletan, "hurrengoen zerrenda"n sartuta. Eta gaur aurkeztera natorrena ere, Gorka Bereziartuak plazaratu berri duen *Ez gara neutralak* liburuaren ondoren, zerrendaren hasieran jarri dut. Ondoko orrian eman dizute albistea: Jakoba Errekondok 1.111. artikulua idatzi berri du aurreko astekarian. Aukera baliatuz liburu bat argitaratzera doaz 1.111 artikulu horien antologiarekin. Noski, ez dira 1.111 testuak sartzen, eta bateko bat kendu diote, potoloena, milakoa. 111 dira artikulu hautatuak, beraz.

AUKERAKETA PROZESUA

Artikuluak ez ditu Errekondok berak aukeratu. Hogeita bi hautatzaile egon dira prozesuan, Jakobaren lagunak denak. Emakume eta gizon, lurraldetasunarekin adi, badaude bertsolariak, idazleak, kazetariak, hizkuntzalariak, musikariak, zinegileak, artistak, botanikoak... Bakoitzari garai ezberdinetako berrogeita hamarna artikulu banatu eta horietatik bost aukeratzeko lana jarri zitzaion. Horrela 110 testuren bilduma osatu da, eta 111. artikulua Errekondok berak idatzitakoa da, astekariko 1.111. artikulua, hain justu (azaroaren 3ko zenbakian ateratakoa, *Hosto-bidea eta hosto-trufa* izenburua duena).

Gorka Arrese izan da editorea eta hari galdetu dizkiot xehetasunak. Balorean jarri du askoren arteko lana izatea, asko eta desberdinak baitira Errekondoren jarraitzaileak, eta askoren begietatik testuen hautaketa anitzagoa izan baita, hogeita bi lagunen idatzizko kolaborazio txiki bat tartean dela, gainera.

Maitane Gartziandiak egin du liburuaren diseinua. Arreseren hitzetan: "Liburuari eman dion formak organikoa bihurtu du Jakobaren ideia. Materialak, koloreak, tamaina, egitura, tipografia, irudiak... dira sotilak, ugariak, funtzio eta irakurketa aukera ezberdinak eskainiko dituztenak".

Plazer bat horrelako bilduma puska bat etxekoa eta euskaraz izatea.

ARGIAREN AZOKAN EROS DEZAKEGU, ERREKONDOK SINATUTA

111 liburu eskuratzeko errazena azoka. argia.eus webgunean erostea da. 20 euro du prezioa eta nahi duenak aukera dauka norentzako den adierazi eta Jakoba Errekondok sinatuta eskuratzeko.

22 EGILEAK

Egile sorta anitz honek egin du artikuluan hautaketa eta hauen aurkezpen sarrera: Antton Olariaga, Anjel Lertxundi, Sagrario Aleman, Elixabete Garmendia, Xabier Montoia, Itxaro Borda, Alex Mendizabal, Andoni Egaña, Arantxa Iturbe, Joseba Tapia, Pantxika Maitia, Koldo Almandoz, Idoia Torregarai, Harkaitz Cano, Maialen Lujanbio, Leire Etxaide, Estitxu Eizagirre, Onintza Enbeita, Markel Lizasoain eta Eneko Mitxeo, Amets Arzallus, Beñat Sarasola eta Danele Sarriugarte. ●

ARGIA
1919 · 2019

AGENDA

PARTE-HARTZEAN OINARRITUTAKO ESKUALDEKO ENPRESEN EKOSISTEMA

Jardunaldia

Tapuntu, Aztiker, Bira produkzioak eta ARGIAk antolatuta.

Azaroak **7**

Orona Ideo Hernani **9:30**

Izena emateko: beterrisaretuz@gmail.com

EZ GARA NEUTRALAK

Liburu aurkezpenak

Gorka Bereziartua egileak aurkeztuko du.

Azaroak **7**

Talako kantina Bermeo **20:00**

Azaroak **12**

Hondarribia

Azaroak **19**

Zaldiko Maldiko Iruñea **20:00**

Abenduak **7**

Areto Nagusia Durangoko Azoka **16:00**

BERDEA DA MORE BERRIA

Liburu aurkezpenak

Onintza Irureta liburuaren egileak Katalunian hainbat hitzaldi emango ditu, katalanera itzulitako liburua (*El verd és el nou lila*) aurkeztuz.

Azaroak **20**

Col-lectiu Rondan Bartzelona **19:00**

Azaroak **21**

Llibreria Synusian Terrassa **19:00**

Azaroak **22**

Manresa **19:00**

Durangoko Azokan aurkeztuko du jatorrizko liburua.

Abenduak **5**

Areto Nagusia Durangok Azoka **18:30**

111 HOSTOZ ETA ORRIZ JANTZI

Liburu aurkezpenak

Azaroak **23**

Duzunaritze **Egun-pasa**

ARGIAren Mendeurren ekitaldien artean, *Ehun urteko paisaian 111 pauso* egun-pasa bereziaren baitan aurkeztuko dute liburuaren 22 egileetako batzuk diren Jakoba Errekondo, Sustrai Colina, Itxaro Borda eta Pantxika Maitiak. Izena emateko: argiak100urte@argia.eus

Abenduak **6**

Areto Nagusia Durangok Azoka **18:30**

Jakoba Errekondok aurkeztuta.

Barrez dio: "Hamalau urte barru estreinatuko da nire hurrengo pelikula". Aurten arte zazpi urtetik behin egin izan ditu eta orain, bi jarraian eginda, kalkuluen arabera behintzat, hamalau urtez langabezian egotea tokatzen zaiola dio. Aurrekari horiek baina, hautsi asmo ditu. Dena den, azken urteok gogorrak izan direla eta "lehertuta" amaitu duela diosku. Burua arintze aldera astebetez bidaiatzen izan da, deskantsatu eta ideia berriei ekiteko.

Noiz hartzen ditu oporrak zine zuzendari batek?

Ohiko zine zuzendari batek ez ditu inoiz oporrak izaten, izatekotan ere, langabezian egongo da. Proiektu batean zabiltza edo ez zabiltza, ez dago besterik. Orain, ia hilabetez Argentinan izango gara Gari Otamendi –*Dantza*-ko dantzaria– eta biok, filma hango euskal etxeetan aurkezten. Bueltatu eta berehala Sardiniara joan behar dut hango festibal batera, *Dantza*rekin hau ere. Baina beno, bitartean burua lantzen jarraituko dut, dagoeneko baditut-eta etorkizunerako hainbat ideia.

Bi pelikula egin dituzu azken bi urteotan. Oxigenoa beharko du zure garunak.

Lehertuta amaitu dut. Atsedena behar dut orain, erotzekoak izan baitira azken bi urte hauek. *Dantza* amaitu baino lehen *Agur Etxebeste!* prestatzen ari ginen. Astea Euskal Herrian pasatzen nuen [Asier] Altunarekin gidoia prestatzen, eta aldi berean burua Madrilen nuen, asteburuetan hara joaten bainintzen beste pelikularen soinuari azken ukituak ematera. Pentsa: definitiboki igande batez Madrilen amaitu genuen *Dantza*, eta astelehenean hasi ginen *Agur Etxebeste!*-ren grabaketekin.

14 urteren ondoren, bueltan da Altuna-Esnal bikotea. Zertara dator orain, filmaren bigarren zatia?

Lehen filmak izandako arrakastaren ondoren bigarrena egiteko eskatu ziguten epe motzean, baina orduan ez Altunak ez nik, ez genuen horretarako intentziorik, norberak beste proiektu batzuk zituen buruan. Hamar urteren ondoren deitu egin ziguten berriz eta, egia esan, pozez eta umorez hartu genuen; opari bat zen guretzat. Izan ere, polita izan da berriz taldea elkartzea.

Ez da normalena hamarkada baten ondoren film baten bigarren zatia egitea. Baina aukera polita izan zitekeela-eta, Altuna eta biok elkartu eta lehen une-



Zinemagileok erakunde publikoak baino ausartagoak gara"

Telmo Esnal, zine zuzendaria

Bi film bi urtean. Telmo Esnal zine zuzendari zarauztarrak bi lan erabat ezberdin estreinatu ditu denbora gutxian: *Dantza* (2018) eta *Agur Etxebeste!* (2019), azken hau Asier Altunarekin batera. Horien gauzatze prozesuaz, zine zuzendariaren bizi erritmoaz eta euskal zinemagintzaren egoera konplexuaz aritu gara hizketan.

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA · DANI BLANCO

tik argi geneukan nondik hasi. Patrizio [Ramon Agirre] alkate izango zen, eta zer-nolako alkate gainera: diru xahutzaile handietako bat. Gürtel kasua puri-purian zegoen orduan, eta hura ere sartzea erabaki genuen.

Zer oroitzapen duzu zure lehen film luzea izan zen *Aupa Etxebeste!* hartatik?

Denbora luze batean euskarazko lanik gabe egon ondoren, belaunaldi askorentzat euskarazko lehen filma izan zen. Sariak jaso genituen Donostiako Zinemaldian, eta jende asko mugitu zen –*Handia*-ren ondoren, euskarazko pelikularik ikusiena da–. Hainbat urte lehenago, ni zinema munduan laguntzaile gisa hasi nintzenean, lan dezente egiten ziren euskaraz, baina gero murriztu egin zituzten Eusko Jaurlaritzaren Kulturako diru-laguntzak, Guggenheim finantzatzeko. Horregatik, Enrique Urbizu eta Alex de la Iglesia zuzendariek, besteak beste, Madrilera egin zuten alde, eta baita langile ginen askok ere. Garai horretan euskal zinemagintzak hutsune handia izan zuen.

Europar Batasunak lege bat ezarri zuen ondoren, administrazio publikoek euren Kulturako aurrekontuaren %6a ekoizpen propioko fikziozko lanetara bideratu behar zela zioena. Telebistara zihoan diru kopuru bat zinemara bideratu zen orduan, eta EITBk asko lagundu zuen gure harridurarako.

> **Zineman laguntzaile gisa hasi nintzenean, lan dezente egiten ziren euskaraz, baina gero murriztu egin zituzten Eusko Jaurlaritzaren Kulturako diru-laguntzak, Guggenheim finantzatzeko"**

Zertan?

Beraiek eskatu ziguten euskarazko film luze bat ekoizteko. Ordurako *Aupa Etxebeste!* idatzia genuen Altunak eta biok, eta gure kasa-edo egiteko asmoa genuen EITBkoak azaldu ziren arte. Gidoia erakutsi genien eta gustatu zitzaien.

22.000 ikusle bildu ditu *Agur Etxebeste!* filmak lehen hamar egunetan. Ez dirudi zifra txarra.

Pozgarria zirudien albistea jaso genuenean, eta oraindik ere jarraitzen du izaten, baina produktoreekin hitz egin dut eta ez daude oso gustura. Egia esan, beti espero izaten da jasotakoa

baino gehiago. Zehazki ez dakit zenbat jendek ikusi duen honezkero, baina filma aurkezten egon garen leku guztietan bete dira aretoak: Zumarragan, Bergaran eta Ondarroan, adibidez. Gipuzkoan orokorrean oso ondo joaten dira saioak; Arabak eta batez ere Gasteizek ere ondo erantzuten dute; eta Bizkaia da nabarmen ikusle gutxien mugitzen dituena. Baina beno, jendeak oso ondo pasa du pelikula ikusten eta asko eskertzen da, hori baitzen helburu nagusia.

Dena den, oro har diot, gaur egun asko kostatzen da euskal kontsumitzaileengana iristea. Oso konplikatua da: euskaraz izan arren ia beti azpidatziak daramatzate ulertzen ez dutenek ere uler dezaten, eta, horrez gain, komedia eta akzioa sartzen diogu filmak ikusteko errazak izateko. Hala ere, euskal zinemagileok urrun gaude *Aupa Etxebeste!*-ren garaian zegoen publiko kopurutik.

***Dantza*-k, bestalde, harrera eta audientzia ona izan du, ez?**

Alderatu ezin diren bi film dira, baina bai, primeran doa. Bizitza luzea izaten dute pelikulek. Bat publikoarentzat egina da eta bestea aldiz pelikula historiko eta artistiko bat da. Beraz, ezin da biengatik berdina eskatu.

Artistikoki asko landu duzuela nabari da.

Apustu oso latza izan zen, oso handia, eta konplikazioak ekarri zizkigun finantzazioa lortzerakoan. Zaila izan da jendeari esplikatu behar izate hori, denek begiratzen baitzidaten ulertuko ez balidate bezala. Dialogorik gabe izatea ez zuten ulertzen, eta ahaztu egiten zaigu zinea mutua izaten hasi zela. Gaur egun zergatik ezin daiteke dialogorik gabeko zinea egin?

Asmo nagusia pelikula eder bat egitea zen. Lehenik edertasuna, gero argumentua. Asko landu dugu bisualki, baina baita soinu aldetik ere. Xanti Salvadorrek sekulako lana egin du.

> **“Oraindik eskas ikusten dut administrazioa. Iruditzen zait ez dela behar beste inbertitzen, inoiz baino jende eta proiektu gehiago egonda ere ofizioan”**

Euskal dantzak filmatzea aspaldidanik buruan zenuen proiektu bat zela irakurri izan dizut. Dantzaria izanda, dantzari zor zenion zerbait zen?

Gaztetan, dantza sarri egiten nuen garaian, beti esaten omen nuen egunen batean pelikula bat egingo nuela euskal dantzen inguruan. Ni ez naiz gogoratzen horretaz, baina azken urteotan bai izan dudala ideia hori buruan. Koldobika Jauregirekin –produkzioaren diseinatzailea– hitz egin nuen, ea dantzarekin zerbait egiteko gogoa zeukan; eta Juan Antonio Urbeltzekin –koreografoa– elkartu ginen ondoren. Azkenean, film normal bat baino, pelikula asko biltzen dituen lana egin dugula iruditzen zait. Izan ere, 25 minutuko 7 kapitulu dokumentalez osatuta dago, eta bakoitzean zerbait ezberdina azaltzen da: dantza bakoitzaren atzean zer sinbo-

logia dagoen, bakoitzak zer kontatzen duen, zer historia izan duten...

Euskal dantzen lekukotasun bat da niretzat *Dantza*. Historiaren parte den zerbaiten testigantza ematea. Bestalde, Jauregiren lana kristorena izan da. Nire ustez, eta biok bat etorri izan gara beti, pelikula hau ardatz tradizional batekin egingo bagenu ez zuen izango izan duen harrera.

Aurrez aipatu ditugu ikusle datuak. Zertan aldatu da euskal zinemagintza azken bi hamarkadetan?

Alde batetik, lehen baino dezente zine gehiago egiten da eta teknikan askoz lan gehiago dago. Ongi, baina gauzak asko aldatzen ari dira. Zinegileak ausartagoak gara erakunde publikoak baino, eta nik uste dut hori dela gakoa. Oraindik eskas ikusten dut administrazioa. Iruditzen zait ez dela behar beste inbertitzen, inoiz baino jende eta proiektu gehiago egonda ere ofizioan.

Izugarria da, adibidez, Zinemaldikoa: film luze ugari egiten dira Euskal Herrian, estilo eta genero guztietakoak, eta horietako asko eta asko diru gutxirekin eginda. Zinemaldian ikusten dira denak, eta batzuk kanpoan geratzen dira denentzako lekurik ez dagoelako. Dena den, Moriarti eta gutxi batzuk mantentzen gara maila gorenean nolabait esanda, betiko industriako pelikulak garelako. Horregatik diot, produkzioa oso handia dela baina babestu egin behar dela, izan ere, horietatik gutxi sartuko dira telebistan eta are gutxiago plataforma digitaletan.

Eta plataforma digitalekin zer? Norantz doa merkatua?

Normala den bezala, produktoreak oso gustura daude. Horietara iristea lortzen duenak izugarrizko dirutza eramaten du, izugarri ordaintzen dute. Azken finean diru asko dute eta merkatua irabazten doaz pixkanaka, izan ere, behin monopolioarekin geratuta, beraiek baino ez dute erabakiko zein pelikula egin eta zein ez. Errezelo hori daukat aspaldidanik, eta jada gertatzen ari da. Jendea Telecinco eta Antena 3 telebista kanalek publizitatutako filmetara joaten da, sekulako boterea baitute, eta, horrela, beti komedia eta thriller moduko pelikulak ekoitziko dira. Betiere beraien eskukoak, ez edozein.

***La Trinchera Infinita* sartu berri da Netflixen, *Errementari* eta *Handia* filmekin batera.**

Produktoreen kontuak izaten dira horiek gehienbat. Dena den, dena ez da hain polita: *La Trinchera Infinita* adibidez, Netlixen sartu delako, ezingo da festibal gehiagotan egon, multinazionalak hala aginduta. Alfonso Cuarón mexikarra ere ez omen dago batere gustura produktoreen erabakiarengatik, *Roma* filma plataformari saltzeagatik. Baina beno, saltzea ere zentzuzkoa da, txarteldegietan irabaziko duzuna baino dezente gehiago ordaintzen dutelako.

Zuzendari bezala zalantza asko pizten dizkidan kontua da, norantz ote doaz gure kontsumo ohiturak. Ez da berdina mugikorrean, ordenagailuan edo zinean ikustea pelikula, berez pantaila handirako pentsatuta daudelako. Gainera, gaur egun ez ditugu bi orduko pelikulak ikusten luzeegiak iruditzen zaizkigulako. Gaur egun mugikorrean ikusi nahi ditugu pelikulak, baina ezin dira bi ordu pantaila txiki horri begira pasa. Ezin du horrela izan, lana ez da apreziatzen. ●

EUSKARALDIAREN IKERKETA
"USURBILGO EMAITZEN AURKEZPENA"
azaroak 6, ASTEAZKENA,
18:00 Potxoenean DOAN

DANTZA
"ORBEL JAUZIA emanaldia"
Orbeldi Dantza Taldea
azaroak 8, OSTIRALA,
19:30 Sutegi SARRERAK*

KONTZERTUA "IZAKI GARDENAK"
azaroak 10, IGANDEA,
19:00 Sutegi SARRERAK*

KALEJIRA-BERTSO BAZKARIA
"Maialen Lujanbio eta Igor Elortza"
azaroak 9, LARUNBATA,
12:30 Mikel Laboa plazatik
BAZKARI-TXARTELA*

SOLASALDIA "Josune Arakistain, Huntza taldeko abeslaria"
azaroak 12, ASTEARTEA,
19:30 Sutegi DOAN

POESIA ERREZITALDIA
"Ugaitz Agirre-ren poesia"
azaroak 15, OSTIRALA,
19:30 Sutegi DOAN

ANTZERKIA "Tabernaria"
azaroak 16, LARUNBATA,
20:00 Sutegi SARRERAK*

PELIKULA "AGUR ETXEBESTE"
azaroak 17, IGANDEA,
19:30 Sutegi SARRERAK*

*SARRERAK: Aldez aurretik Bordatxon, Txirristran, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan. Noaua!ko bazkideekprezio berezian Noaua!ko egoitzan aldez aurretik. *BAZKARI-TXARTELA: Bordatxon, Noaua!n eta Aitzagan salgai soilik.

LIBURUA

Gutunen patua

HIRU GUTUN IRUÑETIK
PATXI ZUBIZARRETA
PAMIELA, 2012

AMAIA SERRANO MARIEZKURRENA

1936ko gerraz aritzeko era asko dago. Horietako bat, hartan gertatua kontatu gabe, gerraurreaz eta gerraosteaz jardutea da. Hor kokatzen da, hain zuzen, Patxi Zubizarretaren liburua.

Irakurlea hasieratik harrapatu nahiz, kontraesana dirudien baieztapena dakar, gerra eta holokaustoari buruzko nobelak ezin jasan omen dituen Alberto Olmos idazlearena. Lehen paratestu horren irakurketak Zubizarretaren asmoaz ere badiosku: nobela hau aurreiritzi hori hausteko ahalegina da; eta era berean, kultur industriak bultzatu joeran salbuespenak badirela erakustekoa. Handinahikeria dirudi, baina nobela irakurri ostean ulertzen da aipuaren eta liburuaren arrazoia, ez baita gerraz diharduen nobela, laguntasunaren inguruko gogoetatzat har daitekeena baizik. Oraingoan idazlea ez da maitasun istorio batean oinarritu erlazioaren nolakotasunak gerrarekin lotzeko, baina minak, traizioak eta damuak oso presente daude.

Euskal nobelagintzan gerra irudikatzeko erabili diren estrategiekin alderatuz, obra honetan bestelako proposamen bat dugula esango nuke, bereziki egiturari eta formari dagokionez. Hiru ataletan partitua, bakoitzak erregistro, molde eta forma banari erantzuten die.

Lehenengo atala Gabrielen eta Rafaelen arteko gutun truke bat dugu, eta hor ikusten da haien erlazioaren sendotasuna; gerra hastear dela, ordea, hitanotik zutanora egingo du bikoteak, eta are euskaratik gaztelaniara Gabrielek, ideologia ezberdinen aurrekari gisa.

Bigarren atala astunxeago egin zait, beharbada datu historiografikoek lehen kapituluko ahozko erregistro biziarekiko kontrastea egiten dutelako. Bertan aurkitzen dira, ordea, pertsonaia nagusien arteko harremanaren gorabeherak ulertzeko zantzuak, eta bigarren mailako pertsonaiek ere giroa aberasten dute; esaterako, maisu izan nahi zuen eskolta soldaduak eta Luziak. Hala ere, oso maskulinotzat irudikatu ohi den munduaren kontaketa honetan ere ez da emakumezkoen ahotsik, eta hori izan dut pena: Luziaren bizipen, pentsamendu eta sentipenak narraziora ez ekartzea, pertsonaiaren erabakiek haren egoeraren konplexutasuna erakusten duten arren.

Azkenik, hirugarren atalean, bigarren pertsonan ari den narratzaileak Rafaelengan fokalizatzen du, haren azken egunak kontatzeko. Hala, tentsioa *in crescendo* doa, amaieraraino. ●



DISKOA

Barruko orroa askatu

Sharon Stoner talde oñatiarreko kideak.

ERRAIETATIK
SHARON STONER
AUTOEKOIZPENA, 2019

IKER BANDIARAN

Oñatiko hirukotea 2004an deskubritu nuen Danbaka Debagoieneko musika lehiaketaren lehen edizioan izena eman zutenean. Betirako gelditu den erdi txantxazko izenpean Kaliforniako desertuko stonerra Euskal Herrira ekarri, Araotzeko haizebihurriarekin iragazi eta bere ukitu propioa emanez aitzindariak izan ziren. Zarketaren gitarra riff irudimentsu eta korapilatsuek, Egoitzen bateria taupada sarkor eta marrazkilariek, eta Iñigoren baxua jotzeko era pendulo-biderkatzaile zein ahots melodia gorenek txundituta utzi zituzten lehiaketako epaimahaia eta, jakina, ikusleak. Lehen saria eskuratu eta estreinako diskoa kaleratu zuten.

Kanta horiek *3.000 bira* eman zituzten agertokietan eta askoren musika aparatuetan, energia, intentsitatea eta melodia barra-barra baitute. Gerora kaleratuko zuten *13 taupada,* osatuagoa, borobilagoa eta bihotzetik eginaz gain, buruarekin planifikatutako lan bikaina. Horri jarraituko zion *Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak* diskoak: lan horrek irudikatzen du garaian taldekideek zituzten musika gustu zabalak eta anitzak; horregatik, aurreiritziak alboratuta, bestelako tempoak eta giroak ere hartu zituen bere baitan.

Orain, atseden luze baten ostean, bueltan datoz eguneroko itogarriari denbora lapurtuz, horixe behar dutelako, erraietatik, musika egin eta plazaratu. *Loto-lorea*-k argi uzten du ahotsak tonu altuagoa hartuko duela. Stoner zama badu ere, melodikoagoa da, pausatuagoa eta erdi tempoekin misteriotsua bilakatzen da. *Sateliteak* stonerragoa eta espazialagoa da, erdi tempoekin jokatuz. *Otso*-k oinarri irmoa dauka, baina dantza egiten du erritmo latino, flamenko eta progresiboarekin. *Inozoen salbamena* rockeroena da eta QOTSA dauka zainetan. *Zirkuluan* oso melodikoa bada ere, instrumental progresiboan amiltzen da. *Maskara* hondeatzaile lokaztua da, zikina eta bortitza. *Gela iluna* heavya eta euskal kantagintza ezkontzeko gai. *Sorgindu* kanta *in crescendo* hazten doan pieza melodikoa. Eta, azkenik, *Agurra* 60ko hamarkadako kutsu handia duen pieza poperoa.

Bueltan da Sharon Stoner, helduago, anitzago eta jakintsuago! ●

Orbain formako irribarrez

IRATI MAJUELO IBAI ARRIETA

Irri bihurri batek aterarazi ditu eszenatokira. Ez show txundigarririk, ez bat-bateko irteerarik. Lasai atera dira Larragako La Laguna elkartea goraino bete duten jarraitzaileen aurrera, entsegu lokalean egongo balira bezala. Mikroak mugitu, kableak baztertu, parez pare begira jarri eta, ai, barre txiki hori. Finean, antzeko zauriekin baikaude hemen, orbain forma hartu duen irribarrez. Bai Gorka, David eta Galder, bai begiak dizdizka dauzkagun entzuleak. Beste behin ere adrenalina igotzeko prest, baina amaiera usaia darion kontzertua hasteko bertigoz. Etorri gara hala ere, eta ezin irri txikia disimulatu.

Zirrara kondentsatu egin da, eta ez soilik kalean baino hamar gradu gehiago egiten dituelako barruan. Areto txikien xarmak dakartza izerdia, elkar ukitzea eta ordu erdian sarrerak amaitu ondoren, hautatua suertatu izanaren sentsazio eder hori. Dena ematera etorri gara denok gaur, eta ez dago atzera bueltarik. Gorkak haur txiki bat dirudi zinez, hizlari dator, filtrorik gabe, dantzan, Nafarroan etxean jokatzen duela jakitun. Eta publikoa ere haur txikien gisara gozarazi nahi du. Barre txikia ez zaio iluntze osoan desagertu.

Energiaz hasi da kontzertua, taldekideak hurbil eta jostari, areto txikietako azken bira honek emandako indarrak berotuta. *Beude, Ez naiz aldatuko, Isiltzen banaiz, Katedral bat, Libre*. Ez dut kantuen ordena gogoratzen. Bai, ordea, txalo zaparradek gidatzen dutela iluntzea. *Ikasten, Biziraun, Spoiler!, Oreka, Toro ("¡nos vamos a Berlin!")*. Txaloak abestien aurretik, ostean, tartean. Eskertzeko adina ez, poza liberatzeko beste bai. *Denak ez du balio, Sols el poble salva al poble, Ikusi Arte*.

Aretoak lehertzear dirudienean egin dute alde hiru musikariek. Kamisetak gorputzari itsasita ditugu, gandua betaurrekoetan. Baina arnasa hartzerako agertu da Gorka, gitarra eskuan. Esker hitzak oparitu dizkie Larragako herritarrei, horren umil, horren goxo hartzearren, memoriaren haziak landatzearren. Historia ahanzturan ez uzteko norberak eskaini dezakeen harea ale horri heldu dio, bakarlari gisa, Larragako herriari *Maravillas* kanta eskaintzeko. Oilo-larrua azalean, begiak are dirdiratsuago.

Ia bi orduren ostean entzun dira *Oihu* iragartzen duten lehen akordeak. Haur txikien ilusioz, baina amaitzera doan zerbait bizitzera doanaren intentsitate beraz entregatu da publikoa, esplikatzen hain zaila den eta guztia eman ondoren geratzen den sentimendu hori Larragan gorpuzteraino. ●

BERRI TXARRAK, BEUDE BIRA

NOIZ: Urriak 27
NON: La Laguna elkartea, Larraga

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Hazkunde. Tenperatura altu. **2.** Sail, eremu. Soka urka-bilurduna. **3.** Euri-erauntsi. **4.** Meteorologian, presio berdineko puntuak lotzen dituen lerroa. **5.** Adar txiki eta mehe. Ihinztatze. **6.** Zuhaitz izena. Erresuma Batuko biztanle. **7.** Itsas hegian bizi den hegazti. Zinikoaren jarrera. **8.** Ugaria ez dena, sarritan gertatzen ez dena. Galiziako.

GOITIK BEHERA:

1. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Ordutegi berezia duen taberna. **2.** Kaiku, kirten. Zurezko jostailua. **3.** ... eman, zoriondu. **4.**Tristezia, goibeldura. **5.** Joka, jotzen. Radonaren ikurra. **6.** Sindikatu abertzalea. Tamaina handiko sugea. **7. Bizkaiko udalerria (argazkian).** **8.** Nagoen lekura zerbait eraman. **9.** Nori atzizkia. Aezkoakoa. **10.** Bokal errepikatua. Erraza ez dena. **11.** Punta, gailur. **12.** Nafarroako herria. **13.** Birikietako tuberkulosi. **14.** Pisua, karga. **15.** Erori aditzaren infinitiboa.

Sudokua

ERRAZA

				3		4		
	1							7
	8	4	2		5	3		
		8	3	5			4	
	2		4	9	7		8	
	9			8	1	2		
		7	8		3	6	5	
8							1	
		2		6				

ZAILA

	8				7			1
	2	5	1					
		1			8			
4	7			9	3			
	9						5	
			8	6			9	3
			3			6		
					5	8	3	
8			2				1	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Aukera aparta	**MAUKA**
Lepoak	
Burutapena	
Oihana	
Bakoitzak bost	
Brasilgo dantza	
Martxan	
Bueltan, inguruan	
Norabait	
Etekina, emaitza	
Mantendu, eutsi	
Gai koipetsu	
Kolore	**URDIN**

EBAZPENAK

ESKER-ESKUIN: 1. HAZTE, BERO, 2. ALOR, LAKIO, 3. EURIJASA, 4. ISOBARA, 5. ZOTZ, URETATZE, 6. PINU, BRITANIAR, 7. UBARROI, ZINISMO, 8. BAKANA, GALIZIAR. **GOITIK BEHERA:** 1. HAEE, PUB, 2. ALU, ZIBA, 3. ZORIONAK, 4. TRISTURA, 5. JOZ, RN, 6. LAB, BOA, 7. BASAURI, 8. EKARRI, 9. RI, AETZA, 10. OOO, ZAIL, 11. TINI, 12. AUIZ, 13. TISI, 14. ZAMA, 15. EROR.

ERRAZA

2	7	9	1	3	8	4	6	5
5	1	3	9	4	6	8	2	7
6	8	4	2	7	5	3	9	1
7	6	8	3	5	2	1	4	9
3	2	1	4	9	7	5	8	6
4	9	5	6	8	1	2	7	3
9	4	7	8	1	3	6	5	2
8	3	6	5	2	9	7	1	4
1	5	2	7	6	4	9	3	8

ZAILA

3	8	4	9	5	7	2	6	1
7	2	5	1	3	6	9	8	4
9	6	1	4	2	8	3	7	5
4	7	8	5	9	3	1	2	6
6	9	3	7	1	2	4	5	8
5	1	2	8	6	4	7	9	3
2	5	7	3	8	1	6	4	9
1	4	9	6	7	5	8	3	2
8	3	6	2	4	9	5	1	7

ESAERA ZAHARRA

BEHARTSU BIZI BAHAIZ, ABERATS HILKO HAIZ.

ANAGRAMAK

MAUKA
SAMAK
ASMOA
BASOA
BOSNA
SANBA
ABIAN
BIRAN
INORA
ONURA
IRAUN
GURIN
URDIN

Raquel Gutierrez

LATINOAMERIKAKO MATXINADA FEMINISTA AZTERGAI

"Gaur egun, erradikala eta masiboa ez dira kontrajarriak, erradikaltasunaren zentzua aldatu delako"

Latinoamerikako borroka sozialetan erreferentziazko izena da Raquel Gutierrezena. Jaiotzez mexikarra, erabat murgildu zen Boliviako 80. hamarkadako gerrilletan eta indigenen mugimenduetan. Kartzelan bost urte emandakoa, Cochabambako Uraren Gerran aktibista, Soziologian doktore, ikertzaile eta unibertsitateko irakasle, kontinenteko borroka feministaren ikerketan eta teorizazioan dihardu azkenaldian. "Matxinada" deitzen duen horren gakoak azaltzen izan da Iruñean, Zabaldik gonbidatuta.

ANDER PEREZ IBAN AGUINAGA

BORROKA IKASTEN ETA IRAKASTEN

"Borroka askotan ibilitakoa naiz, batzuetan besteetan baino emaitza hobeekin. Beti tematu naiz nire pentsamendua beste batzuekiko elkarrizketaren bitartez garatzen. Orain klaseak ematen ditut, belaunaldi berriak formatzen, eta maistra ona naiz, ohore handiz diot. Matematika ikasi nuen, baita are abstraktu eta aspergarriagoa den gauza bat ere: logikaren filosofia. Baina soziologia klaseak ematen ditut, Pueblako (Mexiko) Unibertsitate Autonomoan".

Emakumeek lurraren defentsarako borroketan protagonismoa hartu izana da, zure ustez, Latinoamerikak bizi duen matxinada feministaren gako nagusietako bat. Berria da hori?
Ez da berria, bai berritua. Egun, lurraren defentsarako borroketan, non emakumea protagonista den, emakumezkoak ezbaian jartzen ari dira egitura mixtoak eta horien ezaugarri patriarkalak. Eta hori bada berritasun bat. Bestalde, borroka feminista klasikoak ere berritzen ari dira, eta indarkeria guztiak jarri dituzte jomugan. Saiatzen ari dira estatuaren mekanismo administratiboen eskutan ez erortzen, hau da, indarkeria etxeko indarkeriara ez murrizten. Kontua ez da etxeko indarkeria desagertu dela, baizik eta lotzen dela lan arloko indarkeriarekin, migratzaileen aurkako biolentziarekin eta bestelakoekin.

"Dena ari zarete nahasten", esaten omen dizuete kide gizonezkoek.
Horixe bera. Gutxika ari gara hau dena gizonoi azaldu ahal izateko analitika sortzen. Baina bitartean ez dugu ahazten dena dagoela lotua, eta hortaz, dena nahi dugula aldatu.

Diozunez, protestak, geroz eta erradikalago, geroz eta masiboago ari dira izaten. Ez da ohikoena izan orain arte.
Konturatu gara inork ezin duela bakarrik, eta beraz, ahaleginak egin behar ditugula elkar lotzeko. Eta hori emakumeok egiten dugu hobeto. Ez inolako esentzialismoagatik, baizik eta beti gelditu delako gure gain pertsonen arteko konexioak egiteko betebeharra. Gizonen galdera tipikoa ondokoa izaten da: nola da posible aliantza egitea harekin eta harekin, hainbeste ezberdintasun izanda? Bada honetan guztian [eskuak irekita] ados gaudelako, eta honetan [eskuen arteko tartea txikituz] ez. Hori da anbiguotasuna maneiatzen jakitea.

Ez dirudi prozesu erraza denik.
Ez horixe. Baina emaitzak ikusten dira: Argentinan, Txilen eta Uruguain, azkenaldiko protesta feministak orain

"KONTURATU GARA INORK EZIN DUELA BAKARRIK, ETA BERAZ, AHALEGINAK EGIN BEHAR DITUGULA ELKAR LOTZEKO. ETA HORI EMAKUMEOK EGITEN DUGU HOBETO. EZ INOLAKO ESENTZIALISMOAGATIK, BAIZIK ETA BETI GELDITU DELAKO GURE GAIN PERTSONEN ARTEKO KONEXIOAK EGITEKO BETEBEHARRA".

arteko handienak gainditzen ari dira, diktaduren bukaeran jazo zirenak, eta, argi eta garbi, mixtoak zirenak. Beraz, bada atxikimendurako mekanismo bat: erradikaltasuna. Kontua da: nola ulertzen genuen orain arte erradikaltasuna? Batez ere ezker patriarkalean, erradikaltasuna neurtzeko beti konparatzen ziren norberaren eta beste aldearen ekintzen eraginkortasunak, eta ondorioz, bukatzen zen ekintzak, nolabait, menperatzailearekiko simetrian planteatzen. Egun, erradikala eta masiboa ez dira kontrajarriak, erradikaltasunaren zentzua aldatu delako.

Zein da zentzu berri hori?

Bizitza erdigunean jartzea da kontua, eta konkreziotara jotzea. Saiatu behar gara ez itzultzen abstrakzio orokorren mundura, dena modu ideologikoan soilik eztabaidatzera. Hemen eta orain. Bizitzaren aldekoa eta indarkeria patriarkal guztien aurkakoa da disputa. Horrek mugimendua irekitzea ahalbidetzen du. Horregatik, glifosatoaren kutsaduraren aurka dabiltzan emakumeak erraz aliatu daitezke 4.000 kilometrora zianuroak kutsatutako uraren harira protestan dabiltzan emakumeekin.

Mehatxuak ere ba omen ditu mugimenduak. Zeintzuk?

Aurtengo martxoaren 8ko greban, protesta masiboak izan ziren hiriburuetan, baina herri txikienetara ere iritsi zen mugimendua. Hedadura hori da oztopatu nahi dutena. Horretarako tresna nagusiak pobretzea eta zorpetzea dira. Latinoamerikako toki askotan herritarrak kreditua erabiltzen ari dira oinarrizko gauzak erosteko. Ongi entseatutako praktika da zorpetzearena; horrela menperatu gintuen neoliberalismoak.

Kontraeraso militarra ere aipatu izan duzu.

Brasilen ikusten da gehien hori, baina baita paramilitarizatutako beste hainbat lurraldetan ere. Segurtasun pribatuko enpresez ere ari naiz: makroproiektu bat martxan jartzean, bere segurtasun enpresarekin iristen da. Indarkeriaren monopolioa duten erakunde ofizialekin trikimailuak egin, harreman ilunak eraiki, eta bukaeran armatutako gizon taldeak agertzen hasten dira. Talde horiek emakumeak bortxatu eta neska gazteak bahitzen dituzte, prostituzio-etxeak "behar" dituzte... Birpatriarkalizazioa gertatzen ari da: ez da bakarrik ondasunak kentzea, ez da bakarrik gaitasun politikoak ezabatzea, emakumeen indarra ere mugatzen dute. Horren kontra ere ari gara.

Matxinadaren eta kontraerasoaren arteko lehian, nork irabaziko du?

Kontua da: zer da irabaztea? Niretzat irabaztea litzateke matxinada mantentzeko gai izatea, kontraerasoa oso gogorra denean ere. Ekuadorren, aurreko protesta batzuetan, presidenteak kendu baina *dolarizazioa* herrialdean gelditzen zenean, sarri esaten zuten: "Irabazi baina galdu dugu". Oraingoan ongi egin dute, Moreno gelditu den arren FMIren neurri sorta bertan behera gelditu delako. Gure kasuan, garrantzitsuena izango da ikasi dugun guztia ordenatzea, galdu ez dadin eta berriro atzera egin behar ez dezagun. Baina, irabazi ala galdu? Jarraituko dugu. Ekuadorreko esperientziak, mugimendu feministak eta indigenen mugimenduak bat egin izanak, esperantza ematen digu. Garai gogorrak dira, baina baita interesgarriak ere. Izan ere, matxinada bat dago martxan. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

“Egiazko euskaldunen espeziea kinka larrian da, emakumeak eta wifia lapurtzera datozen hezurbeltzengatik”

Gu sortu ginen enbor zuria pitzatzen hasi dela kezkatuta, jardunaldia antolatu du Biltzarrek, burugabetzarako ekimen net euskaldunak. “Gero eta zailagoa da astearte gauean sagardotegian norbait naturala aurkitzea, tatuajeak dituen harri-jasotzaile bat ikusi nuen aurrekoan eta aza entsalada, mantxurrianoek eta astoek baino jaten ez duten hori, betiko tabernako menuan gehitu dute... euskal arraza urtzen ari zaigu. Hurrengoa zer izango da beltz bat Athleticen?”, adierazi du Pako Gorringo potroeuskaldunak. Jardunaldian, euskal senari jarraikiz, bi hamaiketako, zikiro jana, txotxa eta ondorengo solasaldiak antolatu dituzte: “Mendian gora haritza, ahuntzak mugetan dabiltza”, “Euskaraldia 2020: ahobizi eta belarrimotzak?, “Salvini, ezezagun hori”. Xabinatorren komiki guztien irakurraldia prestatu dute gauerako. ENA duten umeentzat haurtzaindegi zerbitzua ere prestatu dute auzolanean. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Gay nago

- Kaixo! Gaur ezin naiz lantokira joan, gay nago.



Izarok ez du Rosalia izan nahi

Drogen kontsumoa jaitsi arren, Egunean Behin-era engantxatutakoen gorakadak alertan jarri du Osakidetza

“Oso denbora gutxian milaka kontsumitzaile berri daude, ezin diogu egoerari aurre egin”, adierazi du Osakidetzak. Egunean Behin aplikazioak eragindako adikzio kasuek alarma gorria piztu dute larrialdi zerbitzuetan. “MDMA eta anfetak hartzen dituztenak baino azeleratuago etortzen zaizkigu azkarregi erantzuten saiatu diren pertsonak; anbulategi honetan bi laguni patatekoak eman die aste honetan”, azaldu du Josune Lorazepamtegi Basurtuko ospitaleko medikuak. Egunean Behin-era larriki engantxatuta daudenek beste sintoma batzuk ere erakusten dituzte: “Usurbil!” oihukatzen dute edozein herriren argazki bat ikusi bezain pronto eta besoak zuloz beteta eduki ohi dituzte Wikipedia injektatzen dutelako. Sintoma horiek dauzkan norbait ezagutzen baduzu, saiatu bera baino gorago geratzen rankingean. ●

taldekako xilaba

FINALA 2019

HASTA LA 2TORIA

EZ OTOI PENTSA

HASTA LA 2TORIA

BERTSOLARIAK:
ELIXABET ETXANDI / LUR RENTERIA
MADDI SARASUA / HODEI RENTERIA
LEIRE LASKARAI

EZ OTOI PENTSA

TALDEKIDEAK :
MADDI ANE TXOPERENA / MIREN ARTETXE
JOSU TXOPERENA / GORKA ARTETXE

IZTURITZEN: HERRIKO GELA

Bazkaria 12:00etan Saoia 16:30ean

izenak emateko: **+33 (0) 559 54 15 04**

ARGIA | bertsularien lagunak | Communauté d'Agglomération Pays Basque Euskal Herrigune Elkargoa | euskararen urtaroa La quinzaine de l'euskara | eke icb Euskal Kultur Erakundea Institut Culturel Basque

AZAROAK 23
LARUNBATA

IDIARTIA ETXALDEA
DUZUNARITZE

100 URTEKO PAISAIAN 111 PAUSO

PREZIOA: 20 euro **IZENA EMATEKO**: argiak100urte@argia.eus / 616 79 62 84

10:30
IBILBIDE GIDATUA JAKOBA ERREKONDOREKIN
Idiartia etxaldetik abiatuta, bertako paisaia kulturala ezagutzeko.

12:00
IDIARTIA ETXALDERA BISITA JON ARLOUCHET-ekin, Arto Gorriak elkartearen lana ezagutuz.

14:00
IDIARTIAN BAZKARIA
Salda/krema, espeziedun behi sukalkia polenta kremarekin eta etxeko jogurtak.

16:00
Liburuaren aurkezpena
111 hostoz eta orriz jantzi
JAKOBA ERREKONDO

Emanaldi berezia
SUSTRAI COLINA, **ITXARO BORDA**, **IBON RG** eta **PANTXIKA MAITIA**

ANTOLATZAILEAK: EHKOlektiboa, Biharko Lurraren Elkartea eta ARGIA elkarlanean